



Nazioartekotzea

Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuak Erasmus+ programa hobetzeko baliatuko du / 8



Eraikuntzak bultzada hartu du Unanun eta, besteak beste, sei etxebizitza egiten ari dira / 9

Kattuka haur eskolan barne birmoldaketa egin du Arbizuko Udalak bi unitate gehiago sortzeko / 6

Ziordian kexu Aralur zenaren inguruko hondakinak kentzeko prozesua geldidagoelako / 7



Mitxelena, Resano eta Oiarbide, podium sakandarra Nafarroako II. Mailako Aizkoran / 15

Izaskun Beunza, Nafarroako Km Bertikalen txapelduna Beriainen / 16-17

Oihan Soto abeslari lakuntzarrak lau abestiz osatutako EP bat kaleratu du: 'Oihan' / 21

'Heptamerona' irakurraldia eta sorgin ehiza, urriaren 4an, Altsasuko lortian / 23

SINADURAK



ANITZARTEAN
KULTURARTE-
KOTASUN
ZERBITZUA / 5



ANE ZELAIA RUIZ
DE EGINO / 5



OIHANE AGIRRE
ULAIAR / 22

Maider Betelu Ganboa LAKUNTZA

Monica Zubillaga Andueza lakuntzarra nazioarteko triatloi epaile edo ofiziala, Delegatu Teknikoa eta Epaile Arbitroa da. 24 urteko ibilbidean, estatuko probetaz gain, Munduko Txapelketetan, Europakoetan, Ironmanetan, 2010eko Singapurreko Gazteriaren Olinpiar Jokoetan eta hamaika probetan epaile izan da. Horretaz gaindi, Nafarroako Triatloi Federazioko eta Espainiako Triatloi Federazioko epaileen ordezkaria da, eta triatloi formazio irakaslea. Soilik Olinpiar Jokoak epaitzea falta zaio. "Ez dit loa kentzen, baina gustatuko litzaidake".

Nola egin zinen triatloiko epaile?

Egun nire senarra dena –Jose Ignacio Mikeo triatlleta– Nafarroako Unibertsitate Publikoko triatloi taldean hasi zenean, bere probak ikustera joaten hasi nintzen. Nafarroako triatloia hastapenak ziren; oso kirolari gutxi zeuden, soilik bost epaile eta proba oso gutxi, tartean Arbizuko Duatloia, Nafarroako beteranoena. 2026an 25 urte beteko ditut epaile, beraz, atera kontuak! (kar-kar). Nafarroako Triatloi Federazio sortu berriko presidente Enrique Hernandezek triatloi epaile ikastaroa egin behar zutela esan zidan, eta animatzeko, jendea behar zutela. Nik ez nuen nire burua ikusten, baina konbentzitu ninduen, ikastaroa egin eta hurrengo urtean jada epaile hasi nintzen. 24 urte pasa dira, beraz, argi dago gustuko dudala. Orduan epaileak ginen, baina egun ofizialak gara. Epaile, arbitro edo ofizial, hiru izen horiekin ezagutzen gaituzte.

Nolako formazioa izaten da?

Hasteko, lehen mailako ikastaroa egiten da, bakoitzak bere federazioan. Izan ere, epaileok federatuta egon beharra dugu; triatloi federazioko estamentu bat gara. Lehen formazioa presentziala izaten zen, baina pandemia ondotik ia ikastaro gehienak online dira, tarte presentzial txiki bat izan ezik. Estatuko komunitate autonomo guztietan maila guztietako formazioa eman



Monica Zubillaga Andueza nazioarteko epailea Sakanako Haur Triatloian, Urdiainen.

"Triatloi epaileena etengabeko formazioa da"

MONICA ZUBILLAGA ANDUEZA NAZIOARTEKO TRIATLOI EPAILEA

Lakuntzarra maila goreneko triatloi epailea da. 24 urte daramatza epaile, eta mundu mailako proba garrantzitsuenak epaitu ditu. Soilik Olinpiar Jokoetan aritzea falta zaio

dezakegun sei epaile gaude soilik; talde bat osatzen dugu, eta online formazio ikastaroak ematen ditugu. Gero, federazio bakoitzeko epailearen batek ematen du tarte presentziala. Nire kasuan,

Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako ofizialak edo epaileak trebatzen ditut presentzialki; online, estatu guztietakoak. **Beraz, bi federazioetan ari zara, Nafarroakoan eta Espainiakoan.**

Bi federazioetan formazioa eskaintzeaz gain, Nafarroako Federazioko epaileen batzordeko epaileen ordezkaria naiz. Bertan Espainiako Federazioko epaileen batzordean egoteko hautatu nin-

duten, eta bertako epaileen ordezkaria naiz ere bai.

Zenbat kargu. Triatloia zure lanbidea al da?

Ez, epaile guztiak boluntarioak gara. Epaile izatea oso gustuko duzun zerbait izan behar da, gure aisialdiari kentzen diogun denbora baita.

Formazioko lehen mailako ikastaroaren ondotik zeintzuk etorri ziren?

Lehen mailakoaren ondoren bigarren maila autonomikokoa dator. Horretarako, proba kopuru jakin bat epaitu beharra dago, eta bestelako eskakizunak bete. Federazio bakoitzak proposatzen du zein epaile hautatzen dituen bigarren maila autonomikorako. Ondoren, maila nazionaleko ikastaroa dator; eta kasu horretan Espainiako Federazioak aukeratzen du zein epailek egingo duen formakuntza hori. Azterketa gainditu beharra dago, aurrekoetan bezala.

Hurrengo pausoa nazioarteko epaile izatea da.

2009ko abendutik naiz nazioarteko epaile. Ikastaro hauetan, lehenik eta behin, ingelesa proba egiten da, nazioarteko probetako hizkuntza ingelesa denez, formazioa ingelesez baita. Lau urtetik behin ikastaroa berritu behar da. Ikastaro luzeak dira, lau hilabetekoak, online. 2009tik lau urtean behin berritu behar izan dut, eta hain zuzen ere, une honetan ikastaroa berritzen ari naiz. Gurea etengabeko formakuntza da; nazioarteko berri-tzeaz gain, urtero araudia aldatzen da, eta egunean egon beharra dugu. Gainera, triatloiak modalitate asko ditu –distantzia ezberdinetako triatloiak, duatloiak, aquatloiak, aquabike, neguko triatloia...– eta modalitate bakoitzak bere araudia. Uneoro araudia errepasatu eta prest egon beharra dugu.

Triatloian epaile mota ezberdinak daude?

Epaileek lehiaketa garbia izango dela ziurtatzen dute. Epaile edo ofizial soilak izan zaitezke, Delegatu Teknikoa (DT) edo Epaile Arbitroa. Delegatu Teknikoa proba bat jokatu baino lehen

TALLERES GOÑI TAILERRAK

- Kristal aldaketak
- Lanta berritzeak
- Adeitasun autoa doan
- Barruko eta kanpoko garbiketa

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com

hasten da lanean, antolakuntzarekin batera. Probak betebeharrak eta araudi guztia betetzen duela ziurtatuko du: ibilbidea errebisatzen du, webguneko informazio guztia ongi dagoela ziurtatu, araudiak errepasatu, ordutegiak ongi daudela begiratu.... Proba hasi baino lehen, guztia ongi dagoela errebisatuko du. Epaille Arbitroa, aldiz, proba jokatzeko hasten denean arduradun nagusia izango da. Bera arduratuko da, kirol ikuspuntutik, probaren nondik norako guztiez: triatletei santzioak jartzeaz, araudia betetzen dutela ziurtatzeaz, klasi-fikazioak garaiz aurkezteaz...

Epaille edo ofizial soilak zer egiten du?

Delegatu Teknikoak edo Epaille Arbitroak eskatutakoa bete. Delegatu Teknikoak proba jokatu baino bi aste lehenago mezua bidaltzen die ofizialei, lasterketarako zenbat epaille edo ofizial libre dauden jakiteko. Ofizialek izena ematen dute, eta Delegatu Teknikoak lan banaketa egingo du. Probaren ezaugarrien arabera esango du zenbat ofizial behar dituen igeriketa tarterako, zenbat trantsizio gunerako, zenbat bizikletara igo eta jaisten diren tarteetarako, zenbat txirrindularitza tarterako, zenbat korrikarako eta zenbat helmugarako. Eta zeintzuk izango diren eremu bakoitzeko epaille arduradunak. Hori probaren tamainaren arabera da. Haurren lasterketa txiki baterako ez da igeriketa sektoreko arduraduna jartzen, baina helduen lasterketa luze baterako bai. Igeriketa arduradunak bere kargu dauden ofizialak antolatuko ditu, eta gainontzeko ataletan berdin. Igeriketa tarteetan ofizialak zodiac-etan eraman behar dira buiak dauden tokira, triatletek buelta ongi hartzen duten ikustera.

"EPAILEEK LEHIAKETA GARBIA IZANGO DELA ZIURTATZEN DUTE"

"TRIATLOIAN DELEGATU TEKNIKOAK EPAILE GORENA DA"

"NAZIOARTEKO EPAILE TITULUA LAU URTERO BERRITU BEHAR DA"

Helduen txirrindularitza tarteetan epaileek proba motorretan jarraitzen dute. Eta araudia ez bada betetzen, zigorrak jarriko dira. Helmugan denborak hartzen ditugu; nahiz eta triatletek txipa jarrita izan, badaezpada B plana izan behar da, eta horretarako denborak hartu behar dira. Jakina, ofizial hauek guztiek ikusten dituzten arau haustek eta bestelakoak euren arduradunei esango dizkiete, eta hauek Epaille Arbitroari, honek zigorra jar dezan.

Zenbat ofizial behar dira proba baterako?

Probaren distantziaren eta parte hartzaileen kopuruaren arabera. Adibidez, 70 triatleta badaude, txirrindularitza sektore-rako agian hiru motorrekin nahikoa izango da, baina 1.000 partaide badaude 20 motorretik gora beharko dira. Eta gainontzeko guztiarekin berdin. Ez da berdina proba herrikoi bat izatea edo Espainiako Txapelketa, Europakoa edo Mundialeko Serieak izatea. Proba bukatzen denean bilera egiten dugu, eta hobetu beharrekoak zehaztuta, Delegatu Teknikoak txostena bidaliko dio antolatzaileari, hurrengorako kontuan har dezan.

Zer nahiago duzu, Delegatu Teknikoak hala Epaille Arbitroa izatea?

Bakoitzak badu berea. Delegatu Teknikoak proba jokatu baino hilabeteak lehenago hasten da lanean. Adibidez, Ibizan jokatu ziren Mundialetan, proba handia zenez eta modalitate asko jokatu zirenez, bost Delegatu Tekniko aritu ginen lanean: Suitzako, Irlandako eta Zelanda Berriko gizon bana, Norvegiako emakume bat eta ni neu. Proba jokatu baino urte eta erdi lehenago hasi ginen lanean, eta bi astean behin online biltzen ginen. Proba handi horietako Delegatu Teknikoak izateak lan handia eskatzen du aurretik, eta proba iristen zarenean, zalantza asko erantzun behar izaten dira. Gainera, ez ohiko gertakariak gertatzen badira, esaterako, ekaitzak iragarri dituztela, kontingentzia planak aktibatu behar dira. Guztia ongi dagoela ziurtatu eta proba abiatu arte, presio eta estres handia izaten dugu. Aldiz, Epaille Arbitroak probaren egunera arte ez du lan gehiegirik; probaren araudia errepasatu eta ikastearekin, nahikoa. Baina lasterketa hasita, bera da arduradun nagusia. Norbaitek araua hautsi badu, san-

tzioak jarri behar ditu, eta hori ez da gozoa izaten. Bestelako tentsioak dira, klasifikazioak garaiz eta ongi ateratzen direla ziurtatu eta beste. Beraz, zer nahiago dudan, probaren arabera da. Delegatu Teknikoak bazara, gehiago ikasten duzu. Epailen artean postu gorena da, eta hori izan behar da epailen helburua. Baina batzuetan Epaille Arbitroa izatea gogorra da ere bai. Esaterako, irailaren 20an Oropesa del Marren jokaturako T100 Triathlonen Epaille Arbitroa izan nintzen eta urduri nengoen. **Duzun esperientziarekin, zer dela eta?**

T100 Triathlon modalitate berria da, PTO (Professional Triathletes Organisation) enpresak antolatutakoa. Elite mailako 20 gizonen onenek eta 20 emakume onenek parte hartzen dute, elitearen elitea. Aurten bederatzi proba dira guztira eta orain arte Singapur, San Francisco, Vancouver, London, Riviera frantziarra eta Oropesa del Marrekoak jokatu dira. Nire lehenengo T100 izan zen larunbatekoa, eta modalitate berria denez pixka bat urduri nengoen, halako probatan exigentzia maila altua delako. Araudia goitik behera errepasatu eta bideoak ikusi nituen, zalantza zipitzik ez izateko. Halako probetan araudiaren mugan ibiltzen dira, eta arbitro gisa akatsen bat egiten baduzu, asko ikusten da. Esperientzia ezberdina izan zen, interesgarria.

Nork erabakitzen du Delegatu Teknikoak edo Arbitro Delegatuak zeintzuk izango diren?

Guk ez dugu aukeratzen non ariko garen; federazioek hautatzen gaituzte. Horregatik, oso garrantzitsua da araudia egunean izatea, ongi prestatua egotea eta edozein aukera ematen dizutenean lana ongi egitea. Horrela, zugar konfiantza izango dute. Hau da, nahiz eta nazioarteko epaille titulua izan, horrek ez du esan nahi probetara automatikoki deituko zaituztenik. Aurretik lana ongi egin behar duzu. European, nazioarteko probak epaitzen aritzen garen epailen taldean 30 inguru egongo gara. Normalean Delegatu Teknikoak edo Epaille Arbitroa izateko hautatzen naute, baina sarritan epaille edo ofizial soil gisa aritzen naiz, bigarren maila ikasten ari diren epaileek Delegatu Tekniko edo Epaille Arbitro gisa trebatu daitezen, eta eurei laguntzeko.



Abu Dhabiko Mundialetan. UTZITAKOA



Rumanian, igeriketa tarteetan. UTZITAKOA



Monica Zubillaga Andueza, epaille lanetan. UTZITAKOA



Iruñean jokaturako Europako Triatloi Txapelketa luzean Epaille Arbitroa izan zen. UTZITAKOA



Sakanako Haur Triatloian, Sakana Triatloi Taldekoei azalpenak ematen.

Urte hauetan zenbat probatan egin duzu lan?

Ez dut kontua ematen. Urtero hamabost proba inguru egingo ditut, eta kontuak ateratzen hasita, 360tik gora izango dira. Nafarroako probak, Espainiako Txapelketak, Europako Txapelketak, Munduko Kopak, Munduko Txapelketak, Gazteen Olinpiar Jokoak... Denetatik. Polonian, Errumanian, Abu Dhabin, Singapurren, Portugalen, Ingalaterran... toki askotan izan naiz epaile. Nazioarteko proba asko Europan jokatzeko dira, eta askotara joan naiz.

Triatloia kirol olinpikoa da Sidneyko Olinpiar Jokoetatik (2000).

Bai, eta paralinpikoa baita ere. 2010ean Gazteen Olinpiar Jokotan aritu nintzen, Singapurren, baina oraindik ez zait Olinpiadetan aritzea tokatu; espero dut noizbait aritu ahal izatea. Hala ere, Europako epaileek zaila dugu. Olinpiar Jokotarako kontinente bakoitzetik hainbat epaile hautatzen dituzte. Europan 47 herrialde daude, eta beste kontinente batzuetan herrialde askoz ere gutxiago, Ozeanian, esaterako. Uzbekistaneko nire lagun bat bi aldiz egon da Olinpiar jokotan, baina Asian maila horretako epaile gutxiago daudenez, aukera handiagoa dute. Guk zailagoa dugu. Dena den, hautatua izateko talde horren barruan nago; beraz, noizbait aukera sor daiteke, nahiz eta oso zaila izan. Olinpiadetara edo paralinpiadetara joatea gustatuko litzaidake, jakina. Kirolean gabilzanondako, Olinpiadak gorena dira. Baina ez nago obsesio-natuta, goi mailako beste proba askotan aritzen naizelako, esaterako Olinpiaden azpian Top 2a diren Munduko Serietan. Munduko Serietako azken hiru final handietan aritu naiz jarraian, Abu Dhabin, Torremolinosen eta Pontevedran. Hiru aldiz jarraian Munduko Serietan aritu naizen estatuko epaile bakarra naiz.

Zein da epaitu duzun probarik bereziena?

Asko datozkit burura, baina Singapurreko Gazteen Olinpiar Jokoen oroitzapen oso ona dut. Hamaika egun egon nintzen, intentsitate handiko egunak izan ziren, eta harreman handia egin nuen munduko ofizial askorekin. Gainera, aparteko detaileak izan zuten nirekin. Hautatu nindutenean haurdun nengoen, eta hala esan nien. Erantzun zidaten



Monica Zubillaga Andueza, Sakanako Haur Triatloian epaile lanak egiten.

itxarongo nindutela, eta haurra izan eta gero joateko moduan banengo, tokia nuela. Bestela, erreserbako norbait jarriko zutela. Alaba erditu eta hiru hilabetera izan ziren Jokoak, eta ongi nengoenek joan nintzen. Ni itxarroteko izan zuten detaile hori oso berezia izan zen.

Zigorak jartzerakoan triatletak kexatzera etortzen zaizkizue?

Kexatzera etortzen dira, eta batzuetan aurpegi txarrarekin eta hitz ez oso egokiekin. Egindako arau haustea azalduta ere, batzuetan hasieran ez dute ongi hartzen. Kasu horietan, hobeki da elkarrizketa puntu horretan uztea. Batzuetan tarte batera etortzen zaizkigu, arrazoiak gurela eta barkamena eskatzera. Dena den, beste kirolekin gertatzen denarekin ez du zerikusirik. Txartel gorria badugu, baina nik 24 urte hauetan soilik bi txartel ateratu ditut. Triatloia errespetuzko kirola da.

Aurten Altsasuko Duatloia eta Arbizuko Duatloia ez ziren jokatu. Pena handia.

Izugarria. Altsasukoei ulertzen diet. Beti berdinek antolatzen zuten, jende berria erakartzen saiatu ziren, ez zuten lortu, nekatuta zeuden eta utzi zuten. Pena da. Aldiz, Arbizuko bertan behera geratu zen duatleta kopuru nahikorik ez zuelako izena eman. Ni Arbizuko Delegatu Teknikoa nintzen, eta azken unera arte aritu ginen Ane Lizarraga eta biak, jendea animatu zain. Kontua da kirolari askok azken

egunean ematen dutela izena. Baina aurretik erabaki behar duzu lasterketa aurrera aterako den ala ez, erosketak eta bestelakoak aurretik prestatzen hasi behar direlako. Ezin duzu azken egunera itxaron. Jendeak lehenago eman beharko luke izena, antolakuntzaren lana erraztu eta zenbait proba bertan behera geratzea ekidindo luketelako. Arbizuko pena izugarria izan zen, Nafarroako duatloi beterranoena izateaz gain, etxe ondokoa delako. Zorionez, Sakanako Haur Triatloia aurrera ateratu zen.

Urdiainen beharrean, Altsasun, Aitziber igerilekuetako obrak zirela eta.

Horrenbeste urtez Urdiaingo igerilekuetara joan eta gero, arraroa egin zitzaigun Sakanako proba Altsasuko igerilekuetan izatea, baina oso gustura egon ginen. Txirrindularitza tarte oso polita iruditu zitzaidan. Urdiaingo igerilekuek eta inguruak xarma berezia dute: triatloia natura bete-betean egiten da, eta oso berezia da. Antolakuntzaren aldetik errazagoa da, ez delako errepide nagusirik moztu behar, dena bertan egiten da.

Zer nolako denboraldia izan da aurtengoa?

Proba garrantzitsuetarako hautatu ninduten: klub arteko ligako bi proba, Mundialak (Pontevedra), Munduko Serietako Hamburgoko proba, Ironman probak, Europako Triatloi Distantzia Luzeko Txapelketa (Iruñea), Calahorran jokatu

Espainiako Duatloi Cross, Triatloi Cross eta Aquatlon Crosseko Txapelketak, T100 Thriatlon, Nafarroako probak... denboraldi indartsua izan da. Bestalde, lehen mailako formazioa gidatu dut, eta Espainiako Federazioko komitean eta asanbladatan aritu naizen lehen urtea izan da. Interesgarria, triatloia beste alde bat ezagutu dudalako. Urte ona izan da, ezin naiz kexatu.

Noiz bukatuko duzu denboraldia?

Aurtengoa otsailean hasi zen eta urriaren bukaeran despidituko dut. Bizpahiru proba geratzen zaizkit, azkena Cascaisen.

Eta aurrera segitzeko prest.

Oraintxe bertan nazioarteko epaile izateko ikastaroa berritzen ari naizenez, gutxienez beste lau urte egon beharko naiz, ezta? (Kar-kar). Gustuko dut, interesa dut, eta probetarako hautatzen naute. Egia esan, oso gustura joaten naiz.

"GAZTEEN OLINPIAR JOKOEN OROITZAPEN BEREZIA DUT"

"OLINPIADETARA JOAN NAHIKO NUKE; GORENA DIRA"

"2026AN 25 URTE BETEKO DITUT EPAILE; GUSTURA ARI NAIZ"

Triatloian, "berdintasun gorena"

Triatloian igeriketa, txirrindularitza eta korrika batzen dira. "Hiru kirol dira, batean. Entrenatzeko denbora gehiago behar da, kirol bakoitzari berea eman behar diozulako. Gogorra da, gehiago exijitzen du". Baina asko engantxatzen duela uste du Zubillagak. "Aire zabalean egiten den kirola da, modalitate asko daude... probatzen duenak gehienetan errepikatzen du". Triatloia kirol parekidea dela nabarmetzen du, "guztiz. Emakumeen eta gizonen artean ez dago inolako ezberdintasunik: distantziak, zirkuituak eta sariak berberak dira. Epaileak emakumezkoak eta gizonezkoak dira, maila berean. Zenbat emakumezko arbitro daude lehen mailako futboleko?". Delegatu Tekniko asko, hau da, epaileen postu gorena, emakumeak direla dio. "Aurten Nafarroako Kirol Institututik deitu zidaten, Emakumea eta Kirola programaren barruan hitzaldiak emateko. Hainbat kiroleko jokalarik, teknikari eta epaile ginen, eta hamar ikastetxeetan egon ginen. Berdintasunaren aldetik triatloia mundu oso ezberdina dela agerian geratu zen. Zoazen herrialdera zoazela, berdintasun gorena dago gure kirolean". Bestalde, ingurumenarekiko begirune handia dutela gaineratu du. Duela urte batzuk sekulako booma izan zuen triatloiak, baina azken urteetan nolabaiteko beherakada izan du, "ez soilik Nafarroan, toki guztietan baizik. Bere garaian kirol berria zen, modan zegoen... baina kirol gogorra da". Jaitsiera, bereziki, proba herrikoietan sumatu dute. "Espainiako Txapelketetan 1.500 triatletek jarraitzen dute izena ematen".



ASTEKOA

ANE ZELAIA RUIZ DE EGINO

Lotuak

Lotu hitzaren definizioarekin hasiko dut testu hau: soka, katea, edo bestelako baliabide baten bidez, bi gauza edo gehiago elkarri atxiki, higidura mugatu edo eragozte. Edo, soka, oihal, edo antzeko objektu bat zerbaiten inguruan korapiloa eginez finkatzea. Adibidez, zapatak lotzen ditugu edota gerrikoa praketara ere bai. Eguneroko ekintza praktiko eta zehatza da.

Lotura hitzak erabilera desberdinak ditu, testuinguru emozional, sozial edota filosofikoetan ere bai. Norbaitekin emozionalki lotzea, oroitzapen bati lotua egotea, edota eskuak lotuta izatea. Lotura guztiak ez dira beti begi bistakoak, sentitzen ditugun loturak ere badaude. Adibidez, beldurrak edo inposatutako arauak ere lotzen gaituzte.

Hala ere, hizkuntzan zentratuz gero, definizioan azaltzen dena baino esanahi gehiago ditu. Objektuak ez ezik, harremanak, erabakiak, emozioak ... ere lotzen ditugu eta erabilera honetan, loturak dependentzia, konpromiso edota opresio moduan ulertu daiteke.

Badaude askatu ezin diren korapiloak. Azken berrogeita hamar urte hauetan askatu izan ezin direnak. Aspaldi lotua eta ongi lotua utzi zutena askatzeko garaia heldu da.

HIZKETAN

guaixe.eus/irratia/hizketan

Entzun

GUAIXE IRRATIko

elkarrizketa

guztiak



HARA ZER DIEN

Arrazakeriaren aurka aritzeak saria dakar

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Hitzak ez ditu haizeak eramaten. Hitzek mindu edo sendatu dezakete. Tamalez, gero eta gehiagora doaz jarrera, hizkera eta ekintza arrazistak. Gero eta gehiago, zurrumurru deshumanizatzaileak, talde antolatu arrazistak, Afrika iparraldeko gazteen kriminalizazioa eta liskarren bidez pertsona etorkinen “ehiza” justifikatzen ari diren posizioak. Gorputz txuriak ez direnekiko injustiziak, kalte erreparaezinak.

Iruditegi koloniala ari da indartzen, pertsona arrazializatuak arriskutsuak balira bezala. Sentsazionalismoak badu bere tokia hemen, eta

hauteskundeak hurbil izateak baita ere.

Hitzek pentsamenduan dute eragina, pentsamenduak emozioetan eta emozioek ekintzetan. Premisa hau positiboan, irudika dezagun arrazakeriatik libre den Sakana bat. Sor dezagun historia bat zeinetan berdintasuna, aniztasuna, errespetua eta diskriminaziorik eza baloreak bultzatzen diren. Beren sorterritik arrazoi anitzengatik atera eta, Sakanara bizitzera datozenekiko ditugun ideiak eraldatuko dituen historia. Aniztasunean elkarbizitzaren alde egingen duena, bestearekiko zurrumurru eta aurreiritzietatik libre.

Imajina dezagun historia hori, eta egi bihur dezagun.

Plazara ditzagun aniztasunak, tratu eta aukera berdintasunak, eta bestearekin elkarbizitzeak dakarzkigun onurak. Urrundu gaitezen zurrumurru, aurreiritzi eta estereotipoetatik, jarrera arrazista eta xenofoboetatik, eta bila dezagun egia. Hurbil gaitezen bestearengana, ezagutu dezagun bere errealitatea, bera ahotik esana. Eman diezaiogun aitortza.

Zurrumurruen kontrako ipuin laburren VI. Lehiaketa aukera paregabea da guzti horri bizitza emateko. Arrazakeriaren kontra aritzeak saria baitakar.

Hasi paperetik eta... ekintzetara!

Lehiaketarako informazioa: *anitzartean@gmail.com; bitartekaria@sakana-mank.eus; 648 070 710.*

 OBJEKTIBOTIK

Aurreratutako udazkena

Sasoi betean dauden haritzez inguratuta, lehortutako zuhaitzak kontrastea egiten du. Ez dute udako bero zakar horiek lehortu. Lehendik dator kontua. Heriotza “naturala” izanen zela da espero dugun bakarra. Baina irudiak gogoratzen digu bizitzaren oparotasunean ere denak duela hasiera eta bukaera. Bizitzak heriotza zor.





guaixe

komunikazio taldea

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus
GK diseinu zerbitzua:
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
Maider Perkaz Urdiain
maider@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Guaixe

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Kattuka haur eskolak bi unitate gehiago ditu

Udan egindako lanekin zortzi unitate izatera pasa da. Ehun bat haurrendako tokia du

ARBIZU

Arbizuko Udalak Kattuka haur eskola egokitu eta bi unitate berri egin ditu udan. Hala haur eskola sei unitate izatetik zortzi izatera pasa da. Lan horrekin 24 plaza gehiago sortu dira, eta guztira ehun bat ditu. Obra horrekin udalak Sakanan dagoen haur eskoletako plazen eskaerari erantzun nahi izan dio. F.J. Razkin Flores alkateak azaldu duenez, "gaur egun zortzi unitateetatik zazpi ari dira erabiltzen".

Haur eskolan egindako egokitzapenei dagokienez, alde batetik,

psikomotrizitate gela (71,27 m²) zena 1 eta 2 urte arteko haurrendako gela bikoitza bihurtu da, bakoitza dagokion komunarekin. Bestetik, siestetarako gela sortu da. Harako sarbidea komunitik eta kanpoko aldetik dago.

Horretaz aparte, bainera duen aldatzeko altzaria jarri da komunean. Aldi berean, erabilera anitzeko espazioa bitan banatu da. Bata psikomotrizitate gela berria da (113,30 m²) eta bestea siesta gela (37,70 m²). Kanpoan dagoen estalpea luzatu egin da. Bestelako lan txikiagoak ere egi-



Kattuka haur eskola, estalpea eta berdegunea.

nen dituzte, eraikina guztiz egokitzeko. Arbizuko Udalak 50.000 euro inguru bideratu ditu lan horietara.

Lanak eginda, espazio berriak hornitzeko sehaskak, koltxoak, babesleak eta edredoak, lo za-

kuak, aldatzeko altzaria, komunarako eskailerak, armairuak, pixoihalak uzteko altzaria, hesia eta altzariak erosi ditu Arbizuko Udalak. Horretarako aurrekontua 20.000 euro ingurukoa izan da. Guztira 70.000 euro.

Txistorraren eguna eta lanak

Lastailaren 12an ospatuko da. Kale Nagusian, plaza parean, galtzada harriak gaizki zeuden eta 150 m²-an porlana zabaldu dute eta galtzada harri itxura eman diote ondoren. Lanen bermearekin egindako obra izan da. Fernando Urkia kaleko lanak despiditzeko hilabete inguru faltako da. Haren eta Nagusia kalearen bidegurutzea ospakizun egunerako prest egonen da oinezkoendako, ez autoendako. Horregatik, udalak erabaki du egun horretako azokako postuak kalean gora jartzea, hegoalderantz.

Razkinek jakinarazi duenez, "eguraldi txarra egiten badu eszenatokia estalpean jarriko dugu. Toldorik ez dugu berriro jarriko. Pasatakoa eta gero, ez litzateke zentzuzkoena".


Aralarrera bizikletan, eta 76 urterekin

Matilde Fernandez Zurbanok Irurtzun eta Aralarko santutegiaren arteko joan etorria bizikletan egingen du larunbatean. Iruñeko elkarte batek trizikloa erosteko ekimenari ikusgarritasuna eman nahi dio horrela

IRURTZUN

Joan zen urtean 75 urte bete zituela eta, Irurtzun eta Aralarko santutegiaren arteko joan-etorria bizikletan egin nahi izan Matilde Fernandez Zurbano txirrindulariak. Euritan ari zuen eta ezin izan zuen ametsa bete. Uda-berrirako utzi zuen. Eta, orduan ere, eguraldiak ez zion aukerarik eman. Larunbatekoa hirugarren saiakera izanen da.

Oraingoan bere nahiak eta *En bici sin edad Pamplona* elkartearen premiak bat egin dute. Azken horrek triziklo bat erosi nahi du. Elkarteko boluntarioek gidatutako bizikleta berezi horretan adinduei eta ezgaitasuna duten pertsonaei paseoak eman nahi dizkiete Iruñean. Antzeko ekimena bada Corellan. Trizikloa erosteko elkarteak 7.600 euro behar ditu. Diru hori lortzeko *Mi grano de arena* plataforman crowdfunding kanpaina, *laburus/brm7homo*, martxan jarri dute.



Matilde San Martingo Harrian. UTZITAKOA

Ekimen horri ikusgarritasuna emateko, Bizikume (bizikleta eta emakumeren laburdura) taldeko txirrindularia bihar, 10:00etan, pedalei eragiten hasiko da Irurtzongo plazan. Handik Lekunberrirantz joko dute, santutegi-

rako bidea hartzeko. Bizikumetik azaldu dutenez, Fernandezekin batera bidea egin nahi duenak horretarako aukera izanen du. Joan-etorria 60 km inguru dira. Eguraldi txarra balego, igoerako bidea besterik ez lukete egingen.

Txirrindulariak bere bidea egiten duen bitartean, erosi nahi den trizikloaren moduko bat Irurtzongo plazan izanen da, Corellatik ekarria. Hartan buelta bat eman nahi duen guztiak aukera izanen du, 11:00etatik 14:00etara. Doako bidaiak izanen dira. Aipatu elkarteko kideak izanen dira trizikloa gidatuko dutenak.

Fernandez 60 bat urterekin hasi zen bizikletan ibiltzen, mendizikletarekin zehazki. Duela bi urte bizikleta elektrikoa erosi zuen. Bizikumeko kide, ordu-tik taldean jartzen dituen hainbat erronka bete ditu, aurten 20 gain igotzea. Eginak ditu Donejakue bidea eta Donostiako emakumezkoen triatloia.



IRAILAK 29 - URRIAK 3

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Astelehena 29

Irañetako maistraren ingurukoak

Asteartea 30

Erasmus+ programaz

Asteazkena 1

Bertso plaza

Osteguna 2

Elkarriazketa

Ostirala 3

Agenda berezia

Hondakinen gaian, Ziordia gobernuaren zain

Arartekoak udalari eta gobernari "modu koordinatuan" aritzea gomendatu die. Udala ez dago ebazpenarekin ados hondakinak jasotzearen ardura Nafarroako Gobernuarena dela uste baitu

ZIORDIA

Gurelur elkarteak Arartekoaren-gana jo zuen Aralur enpresa ze-naren inguruan dauden honda-kinak jaso ez direlako. Alde ba-tetik, mendealdean Gipuzkoako atez ateko bilketarekin jasotako eta guztiz konpost bihurtu gabea zegoen materia organikoko metak jaso gabe gelditu ziren 2014an. Ziordiko Udalak ordutik ari da meta horiek kentzeko eskatzen. Bestalde, lantegian Gipuzkoan birziklatzeko emandako arropa metak agertu ziren 2019ko udaz-kenean. Bota zuena ere harrapa-tu zuen Foruzaingoak. Eta he-goaldean jendeak hondakinak bota izan ditu. GAN enpresa



Ziordiko Udalak lantegira daraman bidea itxi egin du. ARTXIBOA

publikoaren arabera 39.616 m³ hondakin baino gehiagoko bolu-
mena dago lantegi inguruan.

Arartekoak ebazpenean aitortzen du udalak eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak "ikuspegi guztiz kontrajarriak dituztela hondakinak ezabatzeko azken erantzukizunari dagokionez". Ebazpenak bi erakundeen iritzia jasotzen du: "udalak defendatzen du hondakinaren biltegiaren jatorria Nafarroako Gobernuak prekariori baimendutako material metaketa bat dela, eta, beraz, aldizkako jarraipen neurriak eta eremurako sarbidea mugatzeko neurriak hartzearen kalterik gabe, behin eta berriz eskatzen dio Udalari hondakinak kentzeko. Departamentuak, berriz, ukatu egiten du gai horretan duen erantzukizuna, argudiatzen duenez udalari legokiokeena".

Arartekoaren ustez hondakinak kentzeko eskumena "bi administrazioei dagokie". Horregatik, Arartekoak bati eta besteari gomendatu die "modu koordinatuan, behar diren neurriak har ditzatela etzabadaigai den hondakinaren biltegia ezabatzeko".

Bideqabea

Ziordiko Udalari ez zaio "justua" iruditu Arartekoak berari ezer eskatzea. "gure esku dagoen guztia, eta gehiago, ari gara egiten", azaldu du Olatz Irizar Martinez alkateak. Gaineratu duenez, ebazpena jaso ondoren Arartekoari eta Gurelurri idatzi bana bidali zien udalak. Irizarrek azaldu duenez, "udala bere esku dagoen guztia egiten ari da gaiaren inguruan. Urteak daramatzagu bilerak egiten Ingurumen Departamentuarekin". Irizarrek azaldu duenez, "azken urtean gaia bideratzen hasia zegoela iruditzen zitzaigun, baina berriro ere geldituta dago". Alkateak ziurtatu duenez, "udalak Ingurumen Departamentuarekin elkarlanean hartutako konpromisoak bete egin ditu". Alkateak ziurtatu duenez, "Ingurumen Departamentuarekin dagokio fitxa mugitzea. Ziordiarak oso haserre gaude gaiarekin. Aspaldiko kontua izateaz aparte, egunetik egunera gaia okertzen ari delako". Irizarrek gaineratu duenez, "udalari ardurak eskatzea ez zaigu justua iruditzen".

SAKANAKO GIDA
2026
Martxan da!

Jarri zure iragarkia!

948 564 275 • 661 523 245
publi@guaixe.eus • publizitatea@guaixe.eus

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Lorpen handia eskuratu du Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuak: Erasmus + programan onartu dute. Nazioartekotzerako pauso horrek ikastetxea eta bere hezkuntza proiektua hobetzeko baliatuko dute.

Zer da Erasmus+ programa?

Programak ahalbidetzen du ikasle eta irakasleek Europako ikastetxetara bidaiatzea. Bidaiak finantzatzen ditu eta doan egin ditzakegu.

Nola lortzen da?

Eskaera handia da, urtero ematen dituzten "pasaporteak" gero eta gutxiago dira. 2024an 65 eman zituzten, gu 9. gelditu ginen. Ez da erraza. Beraz, oso-oso pozik gaude. Beste toki batzuetatik ere hots egin ziguten nola lortu ote genuen galdezka. Finantzazioa lortzeko, eskaera eta plana egin behar dira. Programa zabala da eta hainbat aukera eskaintzen ditu. Esaterako, proiektu motzak daude. Guk orain arte proiektu jakin baterako laguntza eskatzen genuen, urtebeterako. Bitan eskatu eta ez genuen lortu.

Zazpi urtetarako plan bat aurkeztu eta, onartuz gero, urteroko bidaietarako finantzazioa ziurtatzen duzu. Azken hori lortu dugu: zazpi urtez nahi ditugun proiektuak egiteko aukera. Programa 2021ean sortu eta 2027ra arte indarrean egonen da. Guk akreditazioa, bidaiak egiteko "pasaportea" ilbeltzaren 23an lortu genuen. Programa 2027an bukatzen denez bi urterako dugu. Ziurtatuta dugu bidaiak horiek egingen ditugula. Gu ziur gaude programa horrek segida izanen duela, horren inguruan sekulako azpiegitura dagoelako muntatuta, herrialde bakoitzak bere nazio agentzia du. Pentsatzen dugu horiek segituko dutela. Beraz, guk 2027ra arte, baina ez dakigu zenbat luza daitekeen. Pozik gaude bidaiak horiek egiteko oinarri sendo bat dugulako.

Noiz hasi zineten honekin bueltaka?

Duela bi urte hasi ginen ideiarekin. Nazioartekotze plana lastailan aurkeztu genuen.

Bidaia horiek, zertarako?

Ez dira ongi pasatzeko bidaiak, gure proiektuak hobetu ahal izateko baizik. Guk hemen proiektu batzuk martxan ditugu. Kanpora atera, besteek martxan dutena ikusi, gurea hobetzeko. Hori da helburu nagusia. Baita Europar Batasunetik heldu diren laguntzen asmoa ere. Aldi berean,



Jessica Gorospe, Pau Insausti eta Iñaki Aldasoro Esloveniara egindako bidaiari. UTZITAKOA

"Besteek martxan dutena ikusi, gurea hobetzeko"

HIART LEITZA RAZKIN ALTSASU BHIKO ERASMUS+ PROGRAMAKO ARDURADUNA

Eskaintza hobetzeko helburuz, institutuak Europako programa horretarako sarbidea lortu du. Irakasle eta ikasleak European barna doan bidaiatuko dute

Europako hainbat ikastetxeren arteko hartu-emana sustatu nahi dute, europartasuna bulkatu.

Zer aurkeztu zenuten?

Gure errealtatean oinarritu ginen. Hau da, hemen ditugun proiektuak aurkeztu genituen. Lau ardatzen ingurukoak dira, gure institutuko ardatzak ere badirenak: metodologia berriak eta digitalizazioa; aniztasuna eta herritar aktiboak; ingurumen programak eta inklusioa. Lau irizpide horien gainean ditugun proiektuak aurkeztu genituen.

Beste ikastetxeekin harremanetan hasi zarete?

Bai. Askotan, proiektu horiek elkarlanean egingen ditugu. Guk beste ikastetxeari egiten ari garena aurkeztu eta elkarrekin zer nolako kolaborazioa izan dezakegun aztertuko dugu. Gu hara joanen gara, baina haiek ere hona etorriko dira. Esaterako, hiru irakasle Alemaniako Stuttgartera joanen gara lastailaren erdialdean. Han Lanbide Heziketako ikastetxe bat bisitatuko dugu. Hango ikasleak gurera noiz

etorriko diren eta bestelakoak zehaztuko ditugu. Ondoren proiektua proposatuko diegu eta haiek gure ikastetxea hobetzeko zer egin dezaketen aztertuko dugu. Martxoan ikasleekin joanen gara hara. Ez dugu zehaztuta zenbat joanen diren bizpahiru irakasleekin batera. Hango irakasleak eta ikasleak ere gurera etorriko dira.

Zein ardatz landuko duzue?

Aurten digitalizazioa eta ingurumena izanen dira ardatz nagusiak. Proiektu bat aurkeztuko

diegu: *Sakana 360*. Ibarrean barna ibilbide birtuala egin asmo dugu. Herrien inguru birtuala sortu nahi dugu, bakoitzaren berezitasunak azalduz. Sakana balioesteko. Eta gure kultura, ohiturak, ondarea zein den erakusteko, baita etorkizuna ere. **Bidaiak eginak hasiak zarete, ezta?** Turkian izan ziren hiru irakasle. Robotika eta digitalizaziorik lotutako gauzak landu zituzten. Beste hiru Esloveniara joan ziren. Biak maiatzean. Ingurumen arloko gaiak landu zituzten. Eta hizkuntza kontuekin beste bat Irlandan izan zen agorrilean. Bidaietan ikasitakoa gure programazioetan eta ikasgaietan integratzen saiatuko gara. Gurea hobetzea baita helburu nagusia.

Lan hori guztia zeinek egiten du?

Denon artean. Irakasleok lan handia dugu, eta hau guztia gehituz gero... Baina guztiaren atzean ilusioa dago. Gauzak ongi egiteko gogoia. Eta institutua behar duen tokian jartzeko gogoia, jendeari esateko gure instituturaren etortzeak merezi duela.

Laguntzarik izan duzue?

Horiek egin ahal izateko aholkularitza, denbora... Ez. Guk geuk, etxean, arratsaldetan eta ahal dugun moduan egin dugu. Ikastetxeak ordu batzuk ditu. Horietatik tiraka ateratzen dira musikala, *Sakana 360*, Erasmus+ eta abar.

Zer ematen dio Erasmus + programak institutuari?

Lehenik, gauzak hobetzeko aukera. Kanpora ateratzea irakasle eta ikasleendako pizgarri bat izan daiteke. Kanpoko jendea ezagutzeko ilusioa. Eta, jakina, lehen aipatutako ardatzak garatu ahal izatea.



"HAU HARTU-EMANA DA. ETA, ASKOTAN, PROIEKTU HORIEK ELKARLANEAN EGINGEN DITUGU"



Nasuvinsa enpresa publikoaren autoa Amandrea kaleko lanen parean. ARTXIBOA

Gobernuak Altsasun beste 20 etxebizitza eraikiko ditu

Erregimen berri batean egingen dira: kooperatibarendako erabilera-lagapena

ALTSASU

EtxeON Nafarroa markarekin foru administrazioak etxebizitza publikoen sustapen-plangintza berria egin du. Hirugarren lehen-dakariordea eta Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politike-tako kontseilari Begoña Alfaro Garciak azaldu zuenez, ekimen horrek "sakoneko aldaketa dakar Nafarroan etxebizitza publikoa planifikatu, eraiki eta kudeatzeko moduan". Haren jatorria garagarrilean onartutako Etxebizitza Eskuragarriari buruzko Foru Legean du. Alfarok esan zuenez, "programak epe luzera bermatu nahi du etxebizitza duin, eraginkor eta eskuragarria izango dela, 2016 eta 2025 urteen artean Navarra Social Housing-ekin bildutako esperientzia jasoz. Horri esker, alokairuko 500 etxebizitza baino gehiago eraiki ahal izan ziren Foru Komunitateko hainbat herritan".

EtxeONen lehenengo fasean, guztira 735 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten da. Horieta-tik 493 alokairuko etxebizitzak izango dira, sozialak zein esku-ragarriak, 128 azalera eskubide-ko salerosketa-erregimenean eta 114 kooperatibendako erabilera lagapeneko erregimenean. Gobernuak etxebizitza eskuratzeko modalitate berriak sortu ditu, besteak beste alokairu eskura-garria, "alokairu sozialaren bal-dintzak betetzen ez dituen baina merkatu librean sartu ezin den biztanleria sektore bati arreta emango diona". Bestalde, "for-mula berritzaileak bultzatuko

dira, esate baterako, erabilera lagatzen ari diren kooperatibak, bereziki adinekoendako, gazteen-dako eta belaunaldien arteko esperientziendako". Gaineratu zuenez, landa eremuko birgaitze programak indartuko dira, bai eta eraikuntza industrializatua ere, epeak arintzeko eta eragin-kortasuna hobetzeko bide gisa.

Gehiago

Gobernuko kideak azaldu zuenez, lehen fasean alokairu sozialera-ko 121 etxebizitza eraikiko dira. Horieta-ko 21 Altsasuko Uhalde-ra eta Amandrea kaleen arteko partzela batean eraikitzen ari da Nasuvinsa enpresa publikoa gaur egun.

Gobernuak Altsasuko Udala-rekin sinatutako akordioaren arabera, partzela berean beste etxebizitza eraikin bat jasotzeko aukera du gobernuak 5 urteko epean. Gobernuak iragarri berri dituen beste 20 etxebizitza horiek partzela horretan eraikiko dira. Alfarok aurreratu zuenez, 20 etxebizitza horiek kooperatiba bati egindako erabilera lagape-neko erregimenean eraikiko dira. Erabilera lagapenean dauden kooperatiben modalitate berri horrendako propio lege bat egin du Nafarroako Gobernuak.

Programak zuzeneko sustape-nak, Nasuvinsak oso-osorik kudeatutakoak, eta eskuordetutako sustapenak konbinatuko ditu, kooperatibekin, udalekin, etor-kizuneko enpresa mistoarekin edo beste eragile batzuekin lan-kidetzan bultzatutakoak.

Hainbat eraikuntza lan egiten ari dira Unanun

Kale berean bi etxebizitza berri jaso dira eta guztira sei etxebizitza egiten ari dira. Haietako bi kontzejuak egin ditu eta alokatzeko izanen dira. Etxeak berritzeko lan gehiago ere badaude martxan

UNANU

Beriain bidea karrikan mugimendu handia dabil aspaldian. Plazako iturritik eskuinera dagoen karrika horretan bi eraikuntza lan egiten ari dira. Alde batetik, eraikuntza enpresa batek etxe zahar bat bota eta berria jasotzeko lanak egiten ari da. Eraikin berriak lau etxebizitza hartuko ditu. Karrikan behera, berriz, unenuarrak dira lanean daudenak. Herriarena zen borda bat eraitsi eta etxe berri bat eraiki dute. Han bi etxebizitza pres-tatu dituzte. Unanuko Kontze-juaren asmoa da etxebizitza horiek alokatzea, herriko gazteei herrian bertan bizitzeko aukera emateko edo herrira jendea era-kartzeko. Lanak egiteko kontze-juak ez du inolako dirulaguntza-rik jaso, berritu zena ez baitzen etxe bat borda bat baizik.

Unanuko Kontzejuak dagoene-ko badaki zer den etxebizitzak alokatzea, beste hiru alokatuta baititu. Haietako bi Denok Bat elkartearen gainean daude, eta bestea maistruek zen etxea da. Horiek ere auzolanean egokitu zituzten. Orain berritzen ari di-ren etxebizitza hori da kontzejuak jabetzan zuen azken eraikina. Beraz, hemendik aurrera popu-lazioa finkatzeko, etxebizitzaren arloan beste neurriren bat hartu



Lau etxebizitza hartuko dituen eraikina. Kalean behera kontzejuarena dago.

beharko du Unanuko tokiko era-kundeak.

Aipatutakoez aparte, eraikun-tza mugimendu gehiago dago Unanun. Plazako iturriaren ez-kerretara dagoen etxe batean konponketa lanak egin dituzte. Bestetik, Nagusia eta Iber karri-ken bidegurutzean dagoen eliza ondoko etxea aldamioz ingura-tuta dago. Aspaldiko partez, be-raz, mugimendua dago.

Bestalde, Ergoienako Udalaren oniritzia jaso ondoren, Nafarroa-ko Gobernuak azken baiezkoa emateko zain dago Unanun ga-

ratu nahi den hirigintza proiektu bat. Herrira eramaten duen NA-7102 errepidearen eta Ondaz-ko bidearen arteko bi partzela dira, frontoiaren ondoan daude-nak. Eraikuntza enpresa batek sustatu zuen udalaren hirigintza planaren aldaketa egituratzailea, lursaila eraikigarria bihurtzeko asmoz. Aurreikusitakoaren ara-bera, partzelaren erdian kale bat eraikiko litzateke, errepidea eta bidea lotuko lituzkeena. Kale berriaren bi aldeetara guztira 15 etxebizitza familia bakar eraiki-ko lirateke.

Txalaparta

Taberna

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

PORTUKO

okide-nai

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)

Etxarri Aranatz: 948 460 988

Ihote elkartearen aldeko herri bazkaria

Kiroldegian giro ederra sortuko da. Elektrotxaranga ere joanen da

OLATZAGUTIA

San Migel festetako bazkariaren antolakuntzan eragile aldaketa izan da eta, estreinakoz, Olatzagutiko ihote elkartea arduratu da hura antolatzeaz. 250 pertsona edo gehiago espero dituzte mahaiaren bueltan eserita. Azken txartelak Barandi tabernan eskura daitezke 25 eurotan.

Elkartetik jakinarazi dutenez, bazkarian lortutako dirua heldu den urteko ihoteen prestaketara bideratuko dute. Izan ere, Portugalgo bi inauterietako ordezkariak etorriko dira Olatzagutira otsailaren 14an. Apika 40 bat pertsona izanen dira eta haien egonaldi gastuak bazkarian ateratako diruarekin ordaindu nahi lituzke elkarteak. Aurten olaztiarrak Portugalgo Arcasen egon dira. Eta Arcasceokin batera Bempostako ihotoekoak izanen dira Olatzagutian. Olaztiarrek azken horiei apirilean bueltatu ko diete.

Lizarragako sanmigeldarren ospakizun eguna iritsi da

XVII. edo XVIII. mendekoa da kofradia eta bere kideek larunbatean bat egingen dute

LIZARRAGA

San Migel kofradiko 20 bat kidek Azi Iturri elkartearen gosalduko dute, 10:00etan. Ohikoa denez, plateretan ez da tripotarik eta axuri hankarik faltako. Hildako kofradeen omenezko meza 13:00etan izanen da. Ondoren auzatea eskainiko dute. Handik elkartera bueltatu eta bazkari ederraz gozatuko dute. Ondorengo trikitilariak girotuko du.

Eginda duten zerrenda bati segituz berritzen dituzte karguak. Aurten emanzaliek Migel Lizarraga Lakuntza da, eta launzalie Txomin Agirre Elso. Azken hori heldu den urtean emanzaliek izanen da. Kofradeek bazkariko gastua eta beste pixka bat gehiago ordaintzen dute. Horrekin diru poltsa osatzen dute, ermitan behar diren konponketak egiteko erabiltzen dena. Edo hildako kofradeen aldeko meza ateratzeko. Azaldu dutenez, “jende berriak ez da sartzen”.

"Lehia baino gehiago ongi pasatzea da kontua"

URKO GORRITI ASTIZ KUADRILLEN ARTEKO LEHIAKO ANTOLAKUNTZA TALDEKOA Ubertearrek udaren hasieran eta akaberan dituzte festak. Azken horien barruan kuadrillen arteko lehia izanen da plazan, igandean, 17:00etan

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL

Gaur abiatuko dira lau eguneko ospakizunak. Festetan kuadrillen arteko erronka izanen da.

Zer da kuadrillen arteko lehia?

Festa Batzordeko bilerara ez da jende asko joaten. Han geunden gazte taldea konturatu ginen igande arratsaldean gauza askorik ez zegoela. Nola bete pentsatzen hasi ginen eta ikusi genuen aukera polita zela kuadrillen arteko lehiaketa bat antolatzea. Betiko herri kirolean neurtuko gara: koxkol biltzea, txingak eramatea, laster egitea, zakua eramatea eta sokatira.

Aurtengoa jokatzeko den aurreneko aldia da?

Bai, estreinakoz egingen da kuadrillen arteko herri kirol lehia. Aurretik izan dira ubertearren arteko pilota partidak edo apusturen bat. Askotan eskatzen diogu udalari, esaterako, aizkolariak edo herri kirolak kanpotik ekartzeko. Baina nabarmena da: bi ubertearren arteko pilota partida jokatzeko bada ikusle gehiago daude kanpoko pilotarien partidaren batean baino. Horregatik proposatu genuen kanpotik zer bait ekarri beharrean guk geuk egitea. Azkenean, ubertearrek nahiago dituzte herritarrek ikusi kanpotik etortzen direnak baino. Hori kontuan hartuta guztiok parte hartzeko deia egin genuen. Arratsaldea betetzeaz aparte, ongi pasako dugu, giro ederra sortzeko.

Zein da iganderako plana?

Lehenik kuadrillek bat egingen dute bazkarian. Makarroi-jana egingen dugu elkarrekin plazan. Segidan kuadrillen arteko lehia jokatu da. Horrela, festetako igande arratsaldeko zati handi bat beteko dugu. Kontua da giroa, denok batera ibiltzea, ez nor bere alde. Elkarrekin gustura bazkaldu eta, ondoren, lehia baino gehiago ongi pasatzea da kontua, bai parte hartzaileak, bai ikusleak. Lehia bilatzen bai-



Igandean parte hartuko duen kuadriletako bat. UTZITAKOAK

"FESTA POLITAK EGIN NAHI BADITU, GARRANTZITSUENA PARTE HARTZEA ETA GIROTZEA DA"

no jendea ongi pasatzeko asmoz antolatu da.

Kuadrillek zenbat kide izan behar dute?

Sei. Momentuz sei kuadrillek eman dugu izena. Osaerari dagokionez, kuadrilla batzuk neska-mutilez osatuta daude, bakoaren batean ia dena neskak eta beste batzuetan dena mutilak. Kuadrillek fitxaketak egin ditzakete?

Ez, denak kuadrilla berekoak izan behar dute. Oraingoan, izena eman dutenen artean hala da. Bakarren bat entrenatzen hasi da? Hori ziur. Batzuk oso serio hartzen dute, beste batzuk patxadaz. Batzuk egunera arte ia ez dute kirol egiten, eta beste batzuk entrenatzen, ongi egiteko. Hala izaten da.

Epailek baduzue?

Epaile izateko bere burua aurkeztu du ubertear batek. Gizon

hori kinta eta adin guztietako herritarrekin ongi moldatzen da. Hori ona da, eta neutro jokatzeak aukera ematen dio.

Saririk bada?

Zer edo zer ematea espero dugu. Apika gazta asanbladaren bitartez, beharbada ardo edo patxaran botilaren bat emanen zaie txapeldunei.

Oraindik izena emateko aukera badago?

Bai, azken momentura arte. Datorrena ongi etorria izanen da. Gurekin hitz egin dezatela, edo plazan ager daitezela igandean. Adinak berdin dio. Azken finean, Uharte Arakil moduko herri txiki batean parte hartzea garrantzitsua da. Festa politikak egin nahi baditugu, garrantzitsua ez da kanpotik ekartzen ditugun gauzak, baizik eta han gaudenak parte hartzea eta girotzea. Zenbat eta gehiago parte hartu, giro politagoa eta harreman estuagoa egiten dugu herri guztiaren artean. Hori polita delako, merezi du parte hartzea.

Ongi ateraz gero, segida izanen luke?

Ongi ateraz gero, aukera polita izanen zen ohitura bihurtu eta segida ematea.

DUELA 25 URTE...



Botika Bakaikun

Susana Moina bilbotarrak botika zabaldu zuen Apaolazaren etxearen beheko solairuan, Bakaiku erdigunean. Botikariak Nafarroako Gobernuari Bakaikun farmazia zabaltzeko eskaria 1995ean egin zion eta 1999an onartu zioten. Moinak adierazi zuenez, sekula ez zuen hiri batean lanik egin. Eta nahiago zuen gazteekin baino helduekin lan egitea. Haiei beti entzuteko prest zegoela gaineratu zuen. Bakaikuarrek harrera ona egin zioten zerbitzu berriari.



UHARTE ARAKIL

MIKEL DONEA FESTAK

IRAILAK 26 ostirala
UAGAK ANTOLATUTA

15:00 Herri bazkaria:
Sagardotegiko menua.
19:00 Gazte txupinazoa.
19:00-21:00 Gazta Txarrak
txaranga.
20:00 Auzatea Udalaren eskutik.
22:00-00:00 Ilargi txaranga.
22:00-04:00 Luziano eta Semea.

IRAILAK 27 larunbata

12:00 Suziria.
Erraldoiak eta buruhandiak.
13:00 Auzatea jubilatuen eskutik.
14:30 Paella jatea herrikoia.
18:00-20:00 Txorongo txaranga.
19:00 Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
20:00-22:00 Biziraun taldearekin
dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
23:00-01:00 Olgetan taldearekin
dantzaldia.
01:30-03:30 DJ Ezekiel.

IRAILAK 28 igandea

12:00 Haurrendako ginkana.
12:30 3x3 futbola, Aralar Mendi
areto futboleko kideek antolatuta.
13:00 Auzatea.
17:00 Kuadrillen arteko lehia
plazan.
19:00 Buruhandiak.
19:00-21:00 Lehian taldearekin
dantzaldia.
19:45 Palestinarekin elkartasuna
adierazteko kontzentrazioa,
plazan.
20:00 Auzatea.
21:00 PlayBack txapelketa.
22:00 Zezensuzkoa.
23:00-01:00 Olloki taldearen
kontzertua.

IRAILAK 29 astelehena

12:00 Meza, elizan.
Erraldoiak eta buruhandiak.
13:00 Auzatea.
14:00 Haurren eta jubilatuen
bazkariak.
16:00-19:30 Haurrendako
puzgarriak.
19:00 Txokolate jana.
Buruhandiak.
19:00-22:00 Joselu Anaiak
taldearekin dantzaldia.
20:00 Auzatea.
22:00 Zezensuzkoa.

OLAZTI

SAN MIGEL FESTAK

IRAILAK 26 ostirala

19:00 Txupinazoa, kultur etxetik.
Ondoren, erraldoiak, buruhandiak
eta La Cigarra txaranga.
20:00-22:00 Duo Estallido
taldearekin musika.
20:00 Japoniar bonbak, kultur
etxetik.
Banaketa.
21:00 Afizionatu mailako Goxua
Txapelketaren finala eta 4/2 pilota
partida Agustin San Miguelen
omenez, San Migel elkarteak,
Olaztiko Udalak eta Goxua taldeak
antolatuta, frontoian.
22:00 Zezensuzkoa.

IRAILAK 27 larunbata

10:00 Olatzagutia-Urbasa XVII.
Mendi Lasterketa, San Migel
plazan (irteera eta helmuga).
10:30 Haur lasterketak: Moto GP
txikiak eta Oinezko lasterketa,
Sutegi taldeak antolatuta, Olaztiko
Udalaren laguntzarekin, San Migel
plazan.
11:30-13:30 Jolas parkea, San
Migel plazan (euriarekin Erburua
kiroldegian).
13:00-14:00 Pintura ikastaroko
ikasleen margoketa erakusketa,
kultur etxean.
13:00 Olatzagutia-Urbasa
XVII. Mendi Lasterketaren Sari
Banaketa, San Migel plazan.
14:30 Herri bazkaria, Olaztiko
Ihoteen Elkarteak antolatuta,
Erburua kiroldegian. Ondoren,
Palestinaren aldeko herri bazkaria.
16:00-19:00 Jolas parkea.
17:00-19:00 Skapaei
Elektrotxarangie.
19:45 Palestinako herriaren aldeko
elkarretaratzea, futbito pistan.
20:00 Japoniar bonbak, kultur
etxetik.
Banaketa.
Gozategi taldearen kontzertua,
futbito pistan (euriarekin,
frontoian).
22:00 Zezensuzkoa.
23:00 DJ Abertxandals, OGAK
antolatuta, gaztetxean.
00:00-02:00 Ken Bat taldearekin
musika, San Migel plazan.
03:00 DJ McFlurry, OGAK
antolatuta, gaztetxean.

IRAILAK 28 igandea
11:00-14:30 Artisautza Azoka,



ERGOIENA Ergoienako eguna Lizarragan. UTZITAKOA

Memoria Historikoaren parkean
(euriarekin, Erburua kiroldegian).
11:00-13:00 Munduko Arrozak:
Sakana Harrera Harana,
Sahara, Errumania, Peru,
Palestina eta Maroko, Sakanako
Mankomunitateko Anitzartean
Zerbitzuak, Sakana Harrera Harana
eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
antolatuta, Memoria Historikoaren
parkean (euriarekin, Erburu
kiroldegian).
11:00 Erraldoi eta buruhandien
kalejira, Altsasuko Gaiteroekin.
11:30-14:30 Poni ibilaldiak,
Memoria Historikoaren parkean
(euriarekin, eskolako frontoian).
12:00-13:00 Txapa tailerra,
Sakana Harrera Harana eta
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
antolatuta.
12:00-14:00 Pintura ikastoroko
ikasleen margoketa erakusketa,
kultur etxean.
13:00 A toda Madre mariatxi
taldearen emanaldia, Clinker
jaketxeak antolatuta, Clinkerren.
13:30 Munduko Arrozak:
dastaketa.
16:00 A toda Madre mariatxi
taldearen emanaldia, Clinker
jaketxeak antolatuta, Clinkerren.
18:00 WC Kale antzerkia,



EGIARRETA Mahaiaren bueltan kantatzeaz aparte, bingoan ere aritu ziren. UTZITAKOA

Intsumisioaren plazan (euriarekin,
frontoian).
19:00-21:00 Tsunami taldearekin
musika, San Migel plazan.
20:00 Banaketa, San Migel plazan.
Japoniar bonbak, kultur etxetik.
21:00 Zezensuzkoa.

IRAILAK 29 astelehena

19:15 Olaztiko Euskal dantzak,
Vicente Argomaniz plazan
(euriarekin, frontoian).
20:00 Banaketa, Vicente
Argomaniz plazan.

LIZARRAGA

IRAILAK 27 larunbata
SANMIGELDARRAK KOFRADIA

11:00 Gosaria eta meza.
15:00 Bazkaria eta
akordeoilariarekin musika.

ARBIZU

IRAILAK 29 astelehena
19:30 San Migel eguneko auzatea,
plazan.



K A N T A R I

ESTREINAKOZ NAFARROAN

Azaroak 21, arratsaldez • Iortia Kultur Gunea

Altasun

Parte hartzen duten Ikastetxeak: IÑIGO ARITZA, KORAZONISTAK eta ZELANDI





Kantari gaztetxoek artean euskarazko kantak sustatzeko ikuskizun bat da. Helburua gazteek euskal kantak abesten eta dantzatzeko ondo pasatzea da; ez du inolako lehiaketa kutsurik. Ibilbide arrakastatsua daraman egitasmoa da, eta **Altsasuko Udala** eta **GUAIXE Fundazioa** elkarlanean, proiektua Nafarroara ekarri dute, Altsasura, hain zuzen. **Iñigo Aritza, Korazonistak** eta **Zelandi ikastetxeak** bidelagun izanen dira.

Iortia kultur guneak hartuko du, azaroaren 21ean, Kantari saioa eta grabazioa. Gazteek, taldeka, euskarazko kantu bat ikasi behar dute (zozketa bidez antolatzaileak emandakoa), eredu moduan erakutsitako koreografia entseatu edo berri bat prestatu, eta eszenatoki gainean jarri abesten eta dantzan, publikoa eta telebista aurrean izango dituztelarik. Estreinaldi handiaren aurretik, azaroaren 7an, entseguak izanen dira.

Lehen Hezkuntzako haurrei, 6 eta 12 urte bitarteko gazteei, bideratutako egitasmoa da.

Kantariren helburu nagusiak:

- Haur eta gazteek euskaraz ondo pasatzea.
- Harreman berriak euskaraz sortzea.
- Euskal kultura sustatzea, dantzak eta kantak uztartuz.
- Haur eta gaztetxoei ikuskizun batean parte hartzeko aukera ematea.
- Familia transmisioan eta, horrenbestez, euskararen sozializazioan eragitea.
- Herriko (edo bailarako) eskola desberdinen artean harreman berriak sortzea.
- Eragile ezberdinen artean, euskararen baitan, elkarlana sustatzea.

IZENA EMAN! EPEA: Irailak 28



Irintar ospetsua omendu dute

Maria Ana Sanz Huarte "hezkuntza eta justizia sozialaren sustatzaile sutsua". Hala irakur daiteke Irañetako Udalak Dukearena etxean, Sanzen sortetxean, jarritako plakan. Eskulturarekin batera Sanzi egindako omenaldiaren oroigarriak dira

Alfredo Alvaro Igoa IRAÑETA

Larrain eta Nagusia kaleen bi-degurutzearen ondoan dago Maria Ana Sanz Huarteren omeneko eskultura larunbatz geroztik. Eskola zenari begira. Irintar talde bat arduratu zen herritar ospetsuaren omenaldia antolatzeaz. Iñaki Arangoa Zia alkateak azaldu zuenez, "ez genuen espero hainbeste jende etorriko zenik. Oso pozik. Lana egin dugu, baina hainbeste jende ikusita gustura gelditzen zara". Argitu zuenez, "garagartzaroan, herriko kontuen berri eman genuenean, jakin genuen Sanz hemen jaio zela. Eta omenaldia prestatzeko lana hartu genuen". Aitortu du "estu eta larri" ibili direla. "Talde oso langilea sortu da, gogo biziz aritu dira eta lan handia egin dute. Ni eta udala oso eskertuta gaude haiekin". Alkateak eskerrak eman dizkio familiari. "Asko eman digu". Eta horrela prestatu ahal izan zuten eskulanak egiteko erabiltzen den gelan jarritako erakusketa, larunbatean ikusgai izan zena. Han panelen bidez omenduaren nondik norakoak ezagutzeko aukera zegoen.

Omenaldia irintarrak Sanz ezagutzeko balio izan duela aitortu du Arangoak. "Askok ez zuten ezagutzen, Sanzek herritik berehala alde egin zuelako. Omenaldian herriko jende asko zegoen. Interesa eta jakin-mina zuten". Larunbatz geroztik argi dago Irañetan emakume ospetsu bat jaio zela. "Emakumezkoek gaur egun trabak dituzte. Sanzen garaian ere gehiago. Ikusten denez, Sanz oso aurrerakoia zen", nabarmendu zuen alkateak.

Sendia

Familiak pozez hartu zuen irintarren ekimenaren berri. Bar-

tzelona, Madril, Santander eta Donostiatik etorritako senideak izan ziren Irañetan, lau belau-naldi. Omenaldia familia topaketa baterako aukera bihurtu zen haiendako. Amelia Guibert Navaz bilobak ez zuen Sanz ezagutu. Baina amaren bidez jaso zuen "abuelitaren" berri. "Familia guztietan harekiko maitasun hori transmititu zaigu. Amak amonaz maitasun handiz hitz egiten zidan, bere bizitzaz, egin zituenez. Amonagatik harro gaude, maitasun handia diogu". Familian arrastoa utzi zuen Sanzek. Guibertek ama irakaslea zen, bera batxilergoan izan zen eta alabak ere irakasleak dira.

Guibertek *Maria Ana Sanz Huarte (1868-1936) en primer termino, mujer* liburua argitaratu zuen. "Nire ahizpa Maria Estherek emandako informazioa dut nik. Bera ere Eskola Normaleko zuzendaria izan zen. Irakasle ikastetxeari buruzko liburua argitaratu zuen Vianako Printzea erakundearekin. Akademia giroan amonaren berri bazuten, baina handik kanpo, ez. Horrek bulkatu ninduen hari buruz idaztera. Eusko Newsen bi artikulua idatzi nituen: *La identidad vasca de Maria Ana Sanz* eta bestea biografia moduko bat".

Azaldu zuenez, "behin baino gehiagotan izan gara Irañetan, amonaren sortetxea bilatu nahian. Baina galdetu eta inork ez zekien. Orain hori ezagutzeko ilusioa dugu". Guibertek

**"AMAK AMONAZ
MAITASUN HANDIZ
HITZ EGITEN ZIDAN,
BERE BIZITZAZ, EGIN
ZITUENEZ"**

azaldu zuenez, "neguko gau luzeetan suaren inguruan familia istorioak, kondairak eta tradizioak transmititzen zaizkigu ahoz, galdu behar ez den nortasun hori emateko, eta bitarteko berriekin osatzeko. Omenaldia tradizio horrekin lotzen dut".

Eskultura

Iñaki Villanueva Ortegak Tafallako hareharri bloke batean irudikatu du Maria Ana Sanz Huarte. "Egina dagoenean errazago dirudi. Lan izugarria izan da. Bloke batetik halako eskultura ateratzea kostatzen da. Gainera, ni, normalean, egurra gehiago lantzen dut. Baina, azken finean, materiala kentzean datza, eta ohituta nago. Material guztiekin jolastea gustatzen zait. Asko gustatzen zait gauza eta material desberdinak erabiltzea". Erabili duen harria "oso goxoa da, lantzeko biguna. Oso polita, eta kalitate onenetakoa da. Mantentzeko berniz pixka bat eman diogu. Etorkizuneko mantentzeaz udalak arduratu beharko du".

Eskultura figuratiboa da Villanuevak egin duena. "Argazkietan oinarritu naiz eskultura egiteko. Eta Hezkuntzan haurrekin lan egiten zuenez, neskato bat jarri diot aldamenean. Haurrekin zuen erlazioa islatzeko Sanzek neskatoaren buru gainean eskua du. Aldi berean, neskak Sanzek beste eskuan duen *El arte de educar* liburua ukitzen du. Eskuekin lotutako hiruki horrek elkarrekiko harremana islatzen du". Sanz hezkuntza, liburua jakintza, haurraren ikasteko gogoia. Gainera, Sanz aurrera begira dago. Parean garai bateko eskola du. "Irañeta herri txikia da eta sarrreran figura indartsu bat du orain".



Eskultura agerian utzi berriren Amelia Guibert Navaz biloba eta bere alabak begira.



Txistularien doinura dantzariak aureskua dantzatu zuten.



Guibertek Irañetako zapia jaso zuen opari gisa.



Oroitua izan zen irintarraren familia eskulturaren ondoan.



Ostiralero, frontoia betetzen da Olaztin.

PILOTA Goxua txapeldunak erabakiko dira Olaztin

Gaur, ostirala, jokatuko dira Goxua Txapelketako finalak, 21:30ean. Goya-Zornozak eta Flores-Etxebestek 3. eta 4. postuak dituzte jokoan, eta Agirre-Kamuel eta Izagirre-Beloki txapelagatik lehiatuko dira. Gurmindok (Olazti) Espada (Agurain) du arerio, eta afizionatuen lau eta erdian Otxoa eta Igoa iritsi dira finalera. Bukaeran, Agustin San Miguel omenduko dute.



Lagun taldea 2024ko Onddo Lasterketan.

ATLETISMOA Altsasuko ferietako Onddo Lasterketa, ate joka

Altsasuko ferietako klasikoetako bat da Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak antolatutako Onddo Lasterketa. Aurten hamaseigarren edizioa izango da eta urriaren 18an jokatu da, 10:30ean plazatik abiatuta. Oinezko martxa 10:45ean hasiko da, eta txikienendako Eskola Arteko Krosa 12:00etan. Izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakanako webgunean.

Mitxelena, Nafarroako zilarrezko txapelduna

AIZKORA Altsasuarrak Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapela irabazi du, Iban Resanoren eta Aritz Oiarbideren aurretik. Mitxelenak eta Resanok 2026an lehen mailan jokatu dute. Jon Erdoziak lehen mailako txapelketari ekingo dio urriaren 11n Lekunberrin

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Igandean Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako final handia jokatu zen Uharte Iruñeko Toki-Alai frontoian. Bertan abuztuaren 14an Donamariako kanporaketan sailkatu ziren lehen bost aizkolariak lehiatu ziren: Aritz Oiarbide etxarriarra, Iban Resano dorrobarrak, Oier Mitxelena altsasuarrak, Jesus Etxeberria eta Patxi Igoa.

Final oso estua aurreikusten zen, kanporaketan lehendabiziko lau aizkolariak 15 segundoko tartean aritu zirelako, eta hala izan zen. Kanporaketarekin alderatuta, lan bikoitza egin beharra zegoen finalean: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitzea. Final estu bezain ikusgarrian, Oier Mitxelena izan zen azkarrena (18:01), behetik gora eginez, Iban Resanori 36 segundo aterata (18:37). Aritz Oiarbide etxarriarrak minutu bat gehiago behar izan zuen lanak bukatzeko (19:02). Alde gehiagorekin, laugarren Jesus



Oier Mitxelena txapelduna, alboan Iban Resano eta Aritz Oiarbide dituela. IRAZOKI

Etxeberria sailkatu zen (21:40), eta bosgarren Patxi Igoa (22:27). Oier Mitxelena eta Iban Resano mailaz igo, eta 2026an Nafarroako lehen mailan lehiatuko dira.

Oier Mitxelena kontentu dago egindakoarekin. "Finala ongi

joan zen. Aurreneko bi enborrak onak ziren, eta hasieran gainontzekoei segitzea, hori zen asmoa" azaldu du txapeldunak. Mitxelena, Resano eta Oiarbide parez pare aritu ziren hasieratik, eta Etxeberria eta Igoa atzerago

geratu ziren. "Resanorekin eta Oiarbidearekin parean joan ginen denbora guztian, agian aurrerago, baina diferentzia askorik gabe" nabarmendu du.

Azken enborrean

Mitxelenak azkeneko bi egurretan atera zuen alde. "Azkeneko bi enborrak hobexegoak zirenez, hor dena eman nuen eta orduan atera nuen abantaila".

Denboraldi bikaina egin du altsasuarrak. Euskadiko III. Mailako Aizkora Txapelketan txapeldunordea izan zen Aitzol Atutxaren atzetik, eta Euskadiko II. Mailara igotzeko txartela lortu zuen. Nafarroako II. Mailako Txapelketa zen bere beste helburu nagusia, eta txapela janztea lortu du. Pozik dago. "Orain entrenatzen jarraituko dut, baina lasai hartuta. Eta datorren denboraldirako betiko martxan hasiko naiz".

Jon Erdozia, lehen mailan

Urriaren 11n Nafarroako I. Mailako kanporaketa hartuko du Lekunberrin, 12:00etan. Hamar aizkolari lehiatuko dira, eta lehendabiziko bostek lortuko dute Doneztebeko finalerako txartela. Bi kaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko erdibituko dituzte. Tartean dago Jon Erdozia etxarriarra. Vicente, Etxeberria, Soroa, Amundarain, Rekondo, eta Oier, Xuban eta Julen Kañamarek izango ditu aurkari.

Futbol denboraldiari areto futbolekoa gehitu zaio

FUTBOLA / ARETO FUTBOLA Futbol txapelketa gehienak martxan daude eta asteburuan hasiko da areto futbola

Futbol denboraldiari areto futbol denboraldia batuko zaio asteburu honetan. Hirugarren mailan, Altsasuk maila berria mustuko du. Betelu taldea izango du aurkari gaur, ostirala, 19:30ean, Betelun. Uharte Arakilgo Aralar Mendik atsedean hartuko du. Lehen maila autonomikoan, Xotak Cantera du aurkari larunbatean, 17:00etan, Cascanten, eta Altsasuk Los Sauces hartuko du igandean, 11:00etan, Zelandin. Arbizuk eta Universidad de Navarrak partida atzeratzea erabaki dute. Emakumeen lehen

maila autonomikoko liga urriaren lehen asteburuan hasiko da.

Lehen mailan, selekzioen atsedendiaren ondoren Osasuna Magna Xota lanera itzuliko da. Larunbatean O Parrulo Ferrolen kontra jokatu du, 21:00etan, Galizan.

Futboleko, bide onetik

Emakumezkoen hirugarren mailan mustu zen Altsasu taldea, Tuterako Lourdes taldearen kontra. 3-1 aurreratu ziren altsasuarrak, Laida Garziandiak (2) eta Alicia Elizalde sartuta-



Xota ligara itzultzeko gogoz dago. XOTA

ko golei esker, baina Lourdesek hiruna berdindu zuen. Altsasuk Mulier liderra du aurkari igandean, 16:00etan, Sarriquiren. Gizonezkoen Preferente mailan, Altsasuk denboraldiko lehen garaipena lortu zuen, Amigo

taldeari 90. minutuan 1-0 irabazita (Unai Calvo). Larunbatean, 17:45ean, Burlades B du aurkari Altsasuk, Ripagainan.

Gizonezkoen erregional mailan Etxarri Aranatzek eta Lagun Arteak garaipen sendoak lortu zituzten lehen jardunaldian. Etxarrik Arga Ibaia hartu zuen San Donaton, eta Urtzi Nazabali (3), Aimar Ijurrari eta Jon Erdoziari esker, 5-0 irabazi zuten gorritxoek eta lider jarri ziren. Lagun Arteak, aldiz, Iruñean jokatu zuen, San Jorge B-ren kontra. Sael Ozoriak, Ander Cocerak eta Ander Agirrek kontrako atean asmatu eta gero, lakuntzarrek 3-0 irabazi zuten.

Etxarri Aranatzek Beloso izango du aurkari larunbatean, 18:30ean, Amayan. Egun berean Lagun Arteak Valle de Egues C hartuko du Zelai Berrin, 16:30ean.



Izaskun Beunza, beteranoen podiumaren gorenean, Maite Beregaña uhartearrekin eta Montse Vazquezekin.

Izaskun Beunza, Nafarroako txapeldun Beriaín Km Bertikalean

MENDI LASTERKETAK Ekaitzengatik kolokan egon zen Beriaín KB, baina eguraldiak tregoa eman zuen eta Unamuno eta Urrestarazu izan ziren azkarrenak Beriaínen Izaskun Beunza eguneko sorpresa izan zen: bigarrena eta Nafarroako txapelduna

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Aralar Mendi klubean urduritasuna zegoen Beriaín Kilometro Bertikalaren bezperan. Ekaitz alertak zirela eta, proba aurrera aterako ote zen, zalantza handiak zeuden. Beriaínera igo ordez, B plana martxan jarri eta Zamartzetik Aralarko San Miguelera igotzea egon zen mahai gainean ere bai. Bezperako ur erauntsiak ezjakintasuna areagotu zuen, baina, azkenean, igande goizean bertan Uhartearrak Arakil Beriaín Km Bertikala aterako zela erabaki zuen antolakuntzak. "Beriaínera!" erantzun zuen, telefonoz, Juanjo Goikoetxeak, pozarren. Goizean ere euria egin zuen, baina lasterketa hasterako atertu eta proba euririk gabe jokatu zen. "Azkenean ongi libratu genuen eguna, sekulako zortea izan genuen" nabarmendu du Goikoetxeak.

Korrikalariak banaka atera ziren 10:00etatik aurrera Uhartearrak Arakilgo frontoitik (471 m) Beriaíngo San Donato baselizara (1.494 m) bidean. 5 km eta 1.023 metroko desnibel positiboa zituzten aurretik, eta malda oso zorrotzak, batzuek %71-ko inklinazioarekin. Beheko zatian lohia topatu zuten, bezperako erauntsien kalte ordaina, baina gorago igotzen hasita ez zegoen lokatzik, eta temperatura epela zen. Korrika egiteko, ezin hobe.

Guztira 179 korrikalarik osatu zuten proba. Azkarrenak Aritz Unamuno bergararra (43:29) eta

"HELMUGAN ERLOJUA BEGIRATU ETA HARRITUTA GERATU NINTZEN"
IZASKUN BEUNZA

Lide Urrestarazu ordiziarrak (49:37) izan ziren. Urrestarazuk bigarren aldiz jarraian irabazi zuen Beriaín Km Bertikala, eta Unamunok joan zen urteko arantza kendu zuen, iaz ez baitzen espero bezala aritu eta helmugara seigarren iritsi baitzen.

Munarriz, denborarekin pozik Sakandarren artean, Aritz Munarriz etxarriarra, aspaldiko ezaguna, izan zen lehena, sailkapenean hamabigarren (46:40). "Orain arte, behintzat, eusten diogu. Oso pozik nago. Beriaín Km Bertikala urteko nire helburuetako bat izaten da. Ez dugu lasterketa irabaztea espero, Euskal Herrian dagoen mailarekin ia ezinezkoa delako (kar-kar). Nire helburua lehen sakandarra izatea da, aurten lortu dut ere bai, eta oso kontentu nago. Egingdako denborak asko poztu nau.

Urte batzuk baditugu, entrenatzen aritu naiz, baina ez nuen uste denbora hori ateratzeko adina izango zenik. Niretako denbora hori egitea beste baten dako irabaztea bezala da. Sekulako animoa eta gorakada eman dit. Aspaldi egin nuen denbora da, Beriaínen aritu nintzen lehen aldian 46 minutuko tartean ibili nintzelako, baina hori duela 12 urte izan zen. Ez nuen espero, baina atera da. Gainera, txispa nuela sentitu nuen. Aprobetxatu beharko dugu, ea noiz arte eusten diogun" azaldu du, irribarrez.

Beunzaren markak

Emakumezkoetan, sorpresa ederra izan genuen. Bigarren emakumea eta, aldi berean, lehen sakandarra, Izaskun Beunza izan zen (54:27). Olaztiarra ikusgarri aritu zen, eta proba Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa zenez, Nafarroako Km Bertikalen txapeldunaren saria jaso zuen, Ainara Alcuazen (55:10) aurretik. Gainera, emakume beteranoetan lehena izan zen, Maite Beregaña uhartearraren (1:00:04) eta Montse Vazquez bilbotarraren (1:00:15) aurretik. Podiumera gehien igo zen korrikalaria izan zen, lehen sakandarraren saria jaso baitzuen baita ere.

Gizonezkoetan sorpresa izan zen, sailkapenean hirugarren sailkatutako Mikel Merino izan baitzen Nafarroako txapelduna (49:37), Iñigo Maciasen (45:06) aurretik, sorpresa Taldeka, Hiru Herri kluba gailendu zen bai emakumezkoetan eta baita gizonezkoetan ere. Gizonezkoen beteranoetan Iñigo Lariz elgoibartarra izan zen onena (44:27), Mikel Beunzaren aurretik (46:27).

Gazteak, indartsu

Beriaín Km Bertikalak agerian utzi zuen harrobi ederra dugu. Txirrindularitza utzi, eta sasoi ikaragarrian ari dira Jon Gil eta Adrian Martinez lakuntzarrek. Gil Top15ean sailkatu zen, hamalagarren (47:09), eta Adrian Martinez 33. sailkatu zen (50:22), lasterketako lehen

"46 MINUTUREN BUELTAN ARITZEA EZ NUEN ESPERO. OSO KONTENTU NAGO"
ARITZ MUNARRIZ

SAKANDARRAK BERIAÍN KB (5 km, 1.023+)

SAILKAPENA

GIZONAK	
1	Aritz Unamuno 43:29
12	Aritz Munarriz 46:40
14	Jon Gil 47:09
22	Beñat Katarain 48:23
23	Iraitz Goñi 48:27
24	Ibai Huarte 49:29
33	Adrian Martinez 50:22
46	Ander Galarza 53:06
49	Jose L. Beraza 53:49
50	Asier Ansa 54:00
56	Joseba Galarza 54:44
61	Andoni Goikoetxea 55:18
67	Julen Fuentes 56:06
70	Aimar Araña 56:18
67	Julen Fuentes 56:06
70	Aimar Araña 56:18
75	Jose J. Maiza 56:39
79	Adrian Claver 57:09
86	Jon Orella 58:48
93	Carlos Mañeru 1:00:27
106	Unai Garabieta 1:01:50
118	Haritz Goikoetxea 1:03:30
135	Jose J. Beregaña 1:06:04
136	Ander Corchero 1:06:09
146	Jose A. Salgado 1:08:18
150	Aratz Jaka 1:09:37

EMAKUMEAK

1	Lide Urrestarazu 49:37
2	Izaskun Beunza 54:27
10	Maite Beregaña 1:00:04
15	Maite Zabaleta 1:03:51

juniorra. Bigarren juniorra Lur Ocon hernaniarra izan zen (51:37), eta hirugarrena Julen Fuentes altsasuarra (56:06). Emakumezkoetan, Nahia Mendizabal beasaindarra izan zen lehen juniorra (1:13:14)

Uhartearrak, fidelak

Jose Luis Beraza uhartearra ezin aipatu gabe utzi. 56 urterekin, Beriaín KB-eab jokaturako hamasei edizioetatik hamabitan lehen uhartearra izan da. "Jada ez naiz asko ibiltzen, baina atzetik datozenak hurbildu arte, eutsiko diogu" txantxa egin zuen. Emakumezkoetan, Maite Beregaña izan zen lehen uhartearra (1:00:04).

Primerako giroa

Beriaingo igoeran jendea bildu zen korrikalariak animatzera. Ondoren, giro ederra zegoen plazan. Ohikoa den moduan, Aralar Mendikoek auzate mundiala zuten prest. Boluntario ugari zeuden lanean. "Eurak eta babeslerik gabe, ezinezkoa litzateke" azaldu zuen Goikoetxeak.



Korrikalari taldea, Julen Fuentes eta Aratz Jaka tartean.



Adrian Martinez, Beriain KB-eko lehen juniorra.

"Zoratzen nago, bihar Olaztiko mendi lasterketan aritzeko prest"

IZASKUN BEUNZA AZAZETA NAFARROAKO KB TXAPELDUNA

Beriain KB-ean horren ongi aritzea espero al zenuen?

Egindako marka egitea ez nuen espero. Azken bi urteetako denboraren erreferentzia nuen (57:36) eta antzeko ibiltzea espero nuen, baina helmugan erlojua begiratu eta harrituta geratu nintzen (54:27). Hasieratik oso sentrazio onak nituen, eta azken momentura arte berdin jarraitu nuen, sufritzen baina gorputzaldi oso onarekin. Entrenatzen ari naiz, baina beste helburu batzuk dauzkatzat, eta nahiz eta ongi sentitu, zuhurra izaten saiatzen naiz, Km Bertikala beste gauza bat delako, oso gogorra, dena goraka, ohituta ez nagoen proba. Beraz, lortutakoarekin zoratzen nago, egia esanda.

Etxeko proba, Urbasakoa, jokatu al duzu?

Bai. Nire helburua ez dira trailak, baina herriko proban



ongi aritzea gustatzen zait. Niretako urteko probarik politena da, plazara iristen naizenean hunkitu egiten naiz beti. Udan mendian aritzen naiz, gustuko dudalako eta herriko proban pentsatzen. Horregatik astebete lehenago Uhartekoa egitea gustatzen zait, dortsala jarrita eramaten baitut nire gorputza mugara. Beriain KB izugarrikoa izan da. Oso pozik nago, larunbateko Olaztiko lasterketarako prest.

Laino guztien azpitik, Bizikleta Eguna aurrera

TXIRRINDULARITZA Irurtzundik euripean ekin zuen ibilbidea Sakanako Bizikleta Egunak, baina lhabartik aurrera ateri zegoen eta erritmo onean Sakana zeharkatu zuten txirrindulariek, Altsasura giro ederrean heltzeko

M.B.G SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako 31. Sakanako Bizikleta Egunak Irurtzun eta Altsasu batu zituen igandean. "Martxa egin genuen, eta hori da garrantzitsuen" nabarmendu du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak. Izan ere, hasieran euria izan zuten bidaide. Aurretik 280 pertsona zeuden izena emanda, baina 80 pertsona inguru bildu ziren Irurtzunen, euriaren eraginez. "Irurtzundik lhabarrera euria egin zuen eta horregatik martxa onean hasi ginen, beste batzuetan baino azkarxeago, baina gustora". Hortik aurrera ez zuen euririk egin. Lakuntzan geldialdia egin zuten, "10 minutukoa, gosaltzeko", eta aurrera segitu zuten, erritmo onean. "Altsasura beste batzuetan baino goizago iritsi ginen, pozik eta hurren-go urtean berriz errepikatzeko asmoarekin".

Barranka Txirrindulari Taldekoek gidatu zuten ibilbidea. "Beti bezala, lan bikaina egin zuten, taldea gidatuz eta segurtasuna zainduz. Julian Claverrek emandako laguntza aipatu nahi dut". Aralar txirrindulari taldeko autoak ireki zuen martxa, eta Aitor Mendozak itxi. Joxi Lazkoek konpondu zituen arazo mekanikoak.



Txirrindulariak, pozik, Lakuntzako atsedeneren aurretik.



Martxa Altsasura heltzen, ibilbideari akabera emanez.

180 korrikalari espero dira XVII. Urbasa mendi lasterketan

MENDI LASTERKETAK Olaztiko probak ibilbide berria du. Korrikalari olaztiarren parte hartze errekorra apurtuko da

Sutegi klubak antolatutako Urbasa XVII. Mendi Lasterketa larunbatean 10:00etan abiatuko da Olaztiko plazatik. Urbasako paraje ederretan 16,4 km (800 m+) egin ondoren, plazara jaitziko dira korrikalariak. Aurten

ibilbide berria dute; Gazbide tumulua, Altsasuko portua, Bargagain, Altsasuko begiratokia, Larrakarte tumulua, Ikazkinen borda eta Urbasako begiratokitik pasatzen dena. Oso kontentu daude izena ematearekin. "180

korrikalari inguru egotea espero dugu, baina pozgarriena da horietatik hemeretzi olaztiarrak izango direla, asko berriki mendian korrika hasi diren gazteak. Korrikalari olaztiarren errekorra dugu, eta oso pozik gaude" azaldu du Fermin Zornoza.

Korrikalariak mendira abiatu bezain pronto, txikienean lasterketak jokatu dira Olaztiko plazan, eta haurrendako puzgarriak egongo dira. Korrikalariak helmugara iritsi ondoren sari ematea hasiko da.

Ergoienako Bira, ziztu bizian

ATLETISMOA Asier Gutierrez eta Maider Razkin izan ziren azkarrenak XIX. Ergoienako Biran. Haizeak berez gogorra den proba are gehiago zaildu zuen, baina, hala ere, korrikalariek probaren edertasuna nabarmendu zuten

Maider Betelu Ganboa LIZARRAGA Lizarragak hartu zuen XIX. Ergoienako Bira. Lasterketa Sakanako Koparako baliagarria zen. Proba nagusia (6,5 km) 32 korrikalarik hartu zuten parte, eta hura bukatuta kategoriatxikiko bilasterketa jokatu ziren. Helduen proba hasi baino lehen haizeak gogotik jotzen zuen, eta hala izan zen lasterketa guztian barna, berez gorabeheratsua den lasterketa are gehiago zailduz. Korrikalariek Dorraora eta Unanura jo zuten, han buelta hartu eta berriro bi herrietatik pasa ziren, Lizarragako helmugara heltzeko.

Asier Gutierrez, alde handiz

Asier Gutierrez Garcia iruindarra ia orrazkera desegin gabe iritsi zen Lizarragara, alde handiz gailenduta (32:44). "Bakarrik joan naiz, baina azkenean sufritu dut. Aspalitik parte hartzen dut Ergoienako Biran, txikia nintzela aitarekin batera korritzen nuen proba nagusia. Iaz Aritz Etxeberriarekin parte hartu nuen, eta bere atzetik bigarren sartu nintzen. Aurten Aritz ez da etorri, eta irabaztea lortu dut (kar-kar)" egin zuen txantxa. Ergoienako Bira "lasterketa oso polita da, gustuko dut. Giro polita egoten da". Proba "gogorra" dela aitortu zuen. "Motza da,



Maider Razkinek semeak zituen zain, eta beraiekin egin zituen azken metroak.

baina ez dago laua den tarterik. Une oro aldapa gora eta behera... baina lasterketa atsegina da, ahal dudana guztietan etortzen saiatzen naiz. Gainera, neskalguna altsasuarra da, hona etortzeko arrazoi gehiago". Mamuxarroen katola jaso zuen sari. "Egongelan jarriko dut".

Aimar Lizarraga, amaren herrian

Asier Gutierrezen atzetik, ia 3 minutura Aimar Lizarraga Munarriz (35:24) eta Andoni Goikoe-txea Triana (35:26) etxarriarrak sartu ziren. Aimarrek ama Li-

zarragakoa du, eta txalo artean sartu ziren bi lagunak. Etxarriarrak bigarren izan zela ezin zuen sinetsi. "Txikitan Ergoienako Biran aritzen nintzen, baina helduen proban parte hartu dudana lehendabiziko aldia izan da aurtengoa. Andoni lagunarekin animatu ginen, eta ahal dena egitera atera gara. Zintzoki, ez dakit bigarren postu hori nola egin dudana ere". Lasterketaren gogortasuna nabarmendu zuen. "Lasterketa gorabeheratsua da. Aldapa horiek... Zailena lehendabiziko aldapa izan da, argi eta

garbi. Hasi eta, berehala, sekulako malda. Haizeak jotzen zuen, eskerrak haize epela zela; gogorra izan da". Asier Gutierrez "ikusgarri" aritu zela nabarmendu zuen Lizarragak. "Bera harapatzea ezinezkoa zen. Gu oso pozik gaude bigarren eta hirugarren izan garelako". Errepi-katuko duen galdetuta, ez du oso argi. "Ikusiko dugu".

Maider Razkin, gurasoen omenez

Maider Razkin Marinek irabazi zuen emakumezkoetan (43:53), Leire Igea Redradoren (44:23:00) eta Erkuden San Martin Gonzalez de la Rota etxarriarraren aurretik (45:40). Maider Razkin Iruñean bizi da, baina ergoendar peto-petoa da. "Aittuna Dorraukoa da, eta amiña Unanukoa" azaldu zuen bere seme txikiak. Lehendabiziko aldia zen Ergoienako Biran aritzen zela. "Gurasoak bertakoak izanda, beti nahi nuen, eta aurtan erabaki dut etorri beharra nuela". Animatu, eta irabazi. "Sorpresa izan da. Ez nuen espero, inondik inora. Lasterketa polita iruditu zait, baina oso gogorra" argi utzi nahi izan du. "Hasi eta berehala aldapa handia zegoen, eta aldaparik ez zegoenean haizea kontra nuen". Hirian korrika egitera dago ohituta. "Horregatik Ergoienan aritzeko beldurra izan dut beti, aldapa gora eta behera ibiltzen den korrikalari horietakoa ez bainaiz. Baina oso polita izan da, eta jendeak asko animatzen du. Dorraon familia dugu, Unanun jende ezaguna... beraz, oso ongi, jendeak airean eraman nau. Oso pozik nago". Ergoienan errepi-katzea ez du baztertzen, "baina gehiago entrenatuta".

Unanuko katola opari bikaina iruditu zitzaion. "Amiñari oparitu behar diogu" argi zuen.

LABURREAN

Luca Martinez, hiru garaipen jarraian



Luca Martinez (Danena) lakuntzarra juniorren bere lehen urtea ikusgarri ixten ari da. Hiru lasterketa irabazi ditu jarraian, Tafallan -Manex Huarte (Ermitagaña) hirugarren izan zen-, Lukinen eta Obanosen. Aurretik beste bost garaipen ditu, Nafarroako txapelduna da, eta erlojupekoan, Espainiako eta Nafarroako hirugarrena. Txalotzekoa.

Ekain Imazek junior mailari agur



Ekain Imaz (Danena) altsasuarrak junior maila despiditu du. "Lorpenekin baino, Danenaken gure artean eratu den laguntasun eta oroitzapenekin geratzen naiz" azaldu du. 2025eko Nafarroako erlojupeko txapelduna dugu Ekain, Altsasuko Erramu Trofeoan eta Galarren garaipena lortu zuen, eta Espainiako Txapelketan laugarrena izan zen.

Sheyla Gutierrezen erorikoa Irurtzunen



Ithabarren bizi den Movistar taldeko Sheyla Gutierrez txirrindulari errioxarrak eroriko larria izan zuen Irurtzun parean entrenatzen ari zela, kattagorri txuri bat bere ibilbidean gurutzatu eta hura ekiditen saiatu zenean. Kaskoa apurtu, eta kokotsean kolpe gogorra hartu zuen, eta hainbat hortza apurtu zitzaizkion. Ongi osatzen ari da.



Ergoienako Birako gizonen eta emakumeen podiuma.



Txikienak oso gustura aritu ziren korrika.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 26

IRURTZUN Tailerra.
Tramankulu mintegia: Barazkiarte.
17:00etan, Gernika plazan.

ALTSASU Bakarrizketa ikuskizuna.
Vaquero umoregilearen bakarrizketa saioa. Sarrerak agortuta.
20:00etan, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.
Hariztiyen kontzertua: Gartxot eta Olaia Inziarte.
20:30ean, Andra Mari ermitaren zelaian.

LARUNBATA 27

LAKUNTZA Auzolana.
Lakuntzako herri parkea garbitzeko auzolana.
10:00etan, parkean.

IRURTZUN Txirrindula erronka.
Bizikume erronka, 75 urteko Matilderen txirrindula erronka: Irurtzundik Aralarko Mikel Donea santutegira txirrindulan.
10:00 Irteera.
11:00 Yayacleta trizikloan ibilaldiak Iruñeko En Bici Sin Edad elkarteak ikustarazteko.

ALTSASU Eguna.
ALTSASUKO Dantzari Eguna, Etorkizuna dantza taldeak antolatuta, Orritz, Ostadar, Taupa, Murixka eta Amaiur dantza taldeekin.
12:00 Dantza emanaldia, herrian zehar.
14:00 Azken dantzak, Foru plazan.
15:00 Bazkaria.
18:00 Dantza plaza irekiak.

ALTSASU Festa.
Intxostiapunta gazte gunearen irekiera jaia: bubble balls, musika eta afaria (3 euro).
18:00etatik 00:00etara, U plazan.

ALTSASU Jaialdia.
Altsasu Tech. Musika Techno jaialdia: Dzergy, Anabea, Deathbass, 215 DJ, Aitor Lizarraga, ElSamy, Korena eta Txen.
18:00etatik 04:00etara, FP Sakana LH ondoko aparkalekuan.

IGANDEA 28

ALTSASU Txirrindula irteera.
Sakanako Mankomunitateak eta Barranka Txirrindularitza Taldeak antolatutako txirrindula irteera berezia: Fitero – Alhama ibaiaren bide berdea ibilbidea.
06:45ean, autobus geltokian.

ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.
Larrañeta elkartearen mendi irteera: Urbasako Kanpina.
08:00etan, elkartean.

IRAÑETA Motoziklismoa.
Endurocross txapelketa.
10:00etan, zirkuituan.

IRURTZUN Antzerkia.
La vida no es delicada pero nos gusta vivirla Orkoiengo antzerki tailerraren antzezlaren emanaldia, Antzerki tailerren arteko topaketaren barruan. Sarrerak: 5 euro.
19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 29

UHARTE ARAKIL Meza.
San Migel eguneko meza nagusia, Mikel Larrabere bikario nagusiaren eskutik.
09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:30etan, 17:00etan eta 18:00etan, Aralarko santutegian.

ASTEARTEA 30

URDIAIN Tailerra.
'Zaindu dezagun Urdiain. Haurren herria denon eskola. Urdiaingo herri eskolako zerbitzuak eta ekipamenduak hobetzeko komunitate



ALTSASU Nafarroako sorgin ehiza
Hamazazpi panelez osatuta, 1525eko urtarilla eta abuztuan zehar nafar Pirinioko ibarretan gauzatu zen lehen sorgin ehiza orokorra, Pedro de Balzanza lizentziatuak gidatu zuena, azaltzen da; testuingurua, gertakizunak eta ondorioak. Nabarraldeak antolatuta, Altsasuko Udalaren eta Nafar Ateneoaren laguntzarekin, Ateneoaren Heptamerona egitasmoaren barruan.
Irailaren 26tik urriaren 4ra. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

hausnarketa' Herri-Eskola hobetzeko komunitate hausnarketa prozesuaren barne.
16:30ean, auzoan.

OLAZTI Tailerra.
Yoga eta sorkuntza familiarterko tailerra: Arnasa hartu, mugitu eta elkarbizi. Bakearen eta elkarbizitzaren aldeko liburutegiak programaren barruan. 5 urtetik aurrera, eta 14 urtetik beherakoak heldu batek lagunduta. Izena ematea: 948371444 edo bibliola@navarra.es. Esterilla bat eramatea gomendatzen dute.
17:00etan, liburutegian.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Jone, batzuetan
Igandea 28 19:30
Astlehena 29 19:00
Maspalomas
Osteguna 2 19:00

ASTEAZKENA 1

ALTSASU Batzarra.
Etxekide zaintzarako etxebizitza kolaboratiboen inguruko batzar informatiboa, Sakanako Pentsiodunak antolatuta.
17:00etan, jubilatuen elkartean.

OSTIRALA 3

LAKUNTZA Ipuin kontakizuna pailazoen eskutik.
Amazonia gara ipuin ilustratuaren kontaketa Porrotx eta Marimototsen eskutik.
17:30ean, plazan.



Er **iti** aluminio PVC

Kalitatea, harrera ona eta prezio ezin hobea

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



Simon Ormazabal Fernandez


2025eko irailaren 21ean hil zen

Momentuboiten gu onduen yondu zarien guziyei, famelikuek biyotzes eskerrak eman nei duzkizubiegu


Etxarri Aranatz - Bakaiku

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 26





Larunbata, 27



Igandea, 28



Astelehena, 29



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifikak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA
Kamioi eta autobus tailerra Sakana inguruko langile bila. Mekanika, txapa eta margo ezagutzak baloratuko dira. Bidali curriculumak tallercamion10@gmail.com / 948 507 019

LAN ESKAINTZA
Auzoko Lagunak egitasmoak aisialdiko hezitzaile lanpostuak betetzeko deialdia zabaldu du: Nafarroako Taupa mugimenduak, Uharte Arakilgo Udalak eta Etxarri Aranazko Udalak garatutako proiektuan lan egiteko. Hezitzaileek euskaraz bizitzeko baliabideak emango dizkiete hizkuntzarekin arazoak dituzten

haur eta gazteei. Informazio gehiago 674 35 19 17 telefonon.

IKASTAROA
Ekitntzaile eta enpresa txikiendako bi ikastaro: Kudeaketa hobetzeko asmoarekin "Antolatatu zure paperak Ogasunarekiko betebeharrak betetzeko" eta "Online izapideak egiteko ziurtagiri digitalaren erabilera eta fakturen diseinua" ikastaroak antolatu ditu Cederna Garalurrek, online izango dira. Informazio gehiago eta izen emateak sakana.admon@cederna.es helbide elektronikoan.

Merkataritzaren gaitasun digitalak hobetzeko ikastaroa: Edukia sortzeari eta Meta Business eta Google Business enpresen erabilera estrategikoari buruzko

prestatuntza jasoko dute dendari parte hartzaileek. Informazio gehiago Cederna Garalurren. Ikastaroan izen ematea labur.eus/2g4bbmre webgunearen bitartez egin behar da.

Mank-ek antolatutako kirol egokituko ikastaroetan izen ematea zabalik: Soinketa eta igeriketa, informazio gehiago eta izen emateak kirolak@sakana-mank.eus edo 948 564 866 telefonon.

OHARRA
Bularreko minbiziaren aurkako 1. Zumbathoian izen ematea zabalik: Altsasun egingo da urriaren 11n, Saray elkarateak antolatuta.

Arbizuko Txistor Egunean lanean ibiltzeko boluntario bila: Bakarraren bat laguntzera ani-

matzen bada udaletxean eman dezake izena.

¡Euskara ikasleendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren sakandarrei zuzenduta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

¡Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteen dako dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bideratuta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburrak.eus



iragarki laburrak .eus

Hemen eta online

iragarki laburrak .eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

"Nik animatzen dut jendea gauzak ateratzera. Ez diozu besteen-gatik gauzak egiteari utzi behar; gustatzen bazaizu, eta idazteko eta sortzeko gaitasuna baduzu, aurrera egin eta gero ikusiko duzu". Gustatzen zaizunarekin aurrera egiteko ahalegina egin behar dela esan du Oihan Soto lakuntzarrak. Lau abestiz osatutako EP bat kaleratu du: Oihan. Musika modu autodidaktikoan ikasi du, eta barrukoa kanporatzeko balio dio.

Nola hasi zinen musikaren munduan?

Betidanik gustatu izan zait abestea. Kotxean, etxean, kalean eta toki guztietan musika entzuten noa. Egun batean koaderno batean nire ideiak idazten hastea pentsatu nuen. Abestiak sortzen eta sortzen hasi nintzen. 2020an edo 2021ean, pandemia zela, idatzitakoari buelta bat ematen hasi nintzaion, eta pentsatu nuen zerbait atera behar nuela; besterik gabe, ea nola gelditzen zitzaidan. 2022an nire lehenengo abestia kaleratu nuen. Nik etxean egin nuen, musika aplikazioekin. Lagunean pasa nien eta igotzera animatu ninduten. Interneten jarri nuen, eta harrera ona izan zuen. Lagunek eta senideek besterik ez zutela entzungo uste nuen, baina oso ongi joan zen, egia esan.

Eta orain abesti gehiago kaleratu dituzu. Nola izan da prozesua?

Pixka bat saltseatzen hasi naiz. Hasieran ez nekien ezer, letra bat musika batekin jartzen nuen eta ea zer ateratzen zen. Gero, YouTube bideoak ikusten hasi nintzen, tutorialak, eta pixka bat notak bereizten eta abar hasi nintzen. Idazteko teknika ere hartzen hasi nintzen; errimak, bertsoen neurriak eta horrelako gauzak kontuan hartzen. Orduan, Iruñean grabazio estudioak bilatzen hasi nintzen, eta batzuekin kontaktuan jarri nintzen; bat aukeratu nuen eta estudioan abestian grabatzen egon nintzen. Hauek bai ongi grabatuta daude. Bi erdaraz, eta nire lehenengo abestiaren remasterizazioa, teknika gehiagorekin eta ahotsa ere hobetu dut. Abesti guztiak disko batean sartu ditut eta nire izenarekin kaleratu dut. Izenburuari bueltak ematen egon nintzen; abestiak nire zati bat dira, eta agian Oihan kutre gelditzen da, baina nire izenak izan behar zuen.

Zer kontatzen dute?

"Abestiak nire zati bat dira; gertuko bizipenak"

OIHAN SOTO ABESLARIA

'Oihan' deitutako lau abestiz osatutako EP bat kaleratu du; modu autodidaktikoan hasi zen, eta musikaren bidez barrukoa kanporatu nahi du



Oihan Soto lakuntzarra.

Lehenengo abestia *Zaindu zure burua* izan zen. Txikitan irainak eta horrelakoak jaso nituen, eta orduan aurrera egiteko eta burua zaintzeko mezua plazaratu nahi nuen. Bigarrenen da *Heridas (Zauriak)* eta bestea *Entre la calma y el caos*; antsietatea izaten dut eta horren inguruan ahotsa altxatzeko idatzi nuen. Azkena, aurten grabatutakoa ere, *Zaindu zure burua 2* da. Remasterizatu dut, beste estilo batean.

Nola deskribatuko zenuke zure musika?

Balada antzekoak dira, tristeak; sentikorrak, entzutekoak eta pentsatzekoak dira. Lagunek esaten didate zerbait mugituagoa atera behar dudala, baina nik ez dakit reggaetoi abestiak idazten, ez zait ateratzen; gertatzen zaizkidan gauzak idazten ditut, gertuko istorioak eta bizipenak. Ez zaizkit ateratzen bestelako gauzak.

Barrukoa kanporatzeko balio izan dizu? Terapia antzeko bat?

Hori da; guztiz. Agian ez dakizu nola aurre egin, eta idazten hasten zara eta ideiak sortzen joaten dira. Deskonektatzeko modu bat

"DESKONEKTATZEKO MODU BAT DA; ABESTEA, MARGOTZEA... OSO ONGI DATORKIT"

da. Abestea, margotzea eta horrelako gauzak oso ongi datozkit. **Zer suposatzen du horrelako zerbait egitea?**

Hasieran pentsatzen dut: "Ai ama! Zer lotsa! Zer pentsatuko du herriko jendeak, senideek, lagunek...". Baina oso ongi dagoela esaten didate; horrela egin behar dela, zerbait gustatzen bazaizu, aurrera egin behar dela. Bideoekin ikasi dut, eta badakit kritikak etor daitezkeela. Baina nik egiten dut gustatzen zaidalako; saltseatzea gustatzen zaidalako.

Profesionalki abeslaria izatea pentsatu duzu?

Buruan ez dut ideia. Pentsatu izan dut oso guay izan daitekeela eszenatoki batean abestea eta abar. Baina, beste alde batetik, lotsa izugarria ematen dit. Gauza bat da abestiak etxetik igotzea, ez ditudala entzuleak ikusten, eta beste gauza bat jendearen aurrean abestea. Kasin pare bat egin izan ditut, Ztanda programatik deitu ninduten eta joan nintzen. Lehenengo aldia epaimahai baten aurrean abestu nuela, eta ongi. Bigarrenen Donostiako portuan izan zen, jendea pasatzen zen... Oso urduri jarri nintzen, baina azkenean dena ahaztu zitzaidan eta egin nuen. Kontzerturen bat egin beharko nukeela esan didate. Ikusiko dugu.

Sareak ere erabiltzen dituzu.

Nik Instagram erabiltzen dut (@oihanss): "gaur abesti hau igo dut", "entzun dezakezue"... Hasieran lotsa ematen dit, baina jende askok sareak erabiltzen ditu bere gauzak igotzeko. Esaterako, arropa denda batek daukana erakusten du, eta horrek jendea mugitzen du. Publikazioak berbidaltzen dira, eta egiten duzuna jendeari iristeko bide erraza da.

Etorkizunerako? Abesti gehiago dituzu? Idazten jarraitu duzu?

Bai, idazten beti jarraitzen dut. Koadernoan gauza pila bat ditut; borradore pila bat. Beti iristen zaizkit ideiak. Musika sortzearena, agian musika tresnaren bat jotzen hasi beharko naiz ere. Anaiak gitarra dauka, eta behin baino gehiagotan saiatu naiz. Buelta bat eman behar diot. Baina letra gehiago baditut, ikusiko dugu. Gaietan artean denetarik dago. Pixka bat intentsua naiz idazten, baina ez dut nahi denak horrelakoak izatea. Pozgarriagoak edo alaiak idazten hastea gustatuko litzaidake.

Hitzarekin jolasteko saioak antolatu ditu Bertso Eskolak-ek


Gaur, irailak 26, amaituko da Nafarroako Bertso eskoletan izena emateko aukera

SAKANA

Irurtzunen, Lakuntzan (bi talde), Etxarri Aranatzek eta Altsasun (bi talde) izanen dira Bertso Eskola taldeak Sakanan. Gaur, irailak 26, amaitzen da 2025/2026 ikasturterako izena emateko aukera. Guztira, Nafarroako Bertsozale Elkartek 44 talde eskainiko ditu. Urriaren lehenengo astean abiatuko dira eskolak, eta Sakanako irakaslea Saats Karasatorre izanen da.

Nafarroako Bertso Eskolak-ek *Bertso Jasa Bat-Bateko Jolasa* 9 eta 14 urte bitarteko gaztetxo-

dako bertso saio ludikoak antolatu ditu: Irailaren 29an, astelehena, 16:00etan, Eneko Lazkoz eta Saats Karasatorrerekin, Etxarri Aranazko kultur etxean. Urriaren 2an, osteguna, 16:00etan, Altsasuko AEKn Idoia Granizo eta Saats Karasatorre izanen dira, eta urriaren 7an, asteartea, Joana Ziganda eta Saats Karasatorre, Irurtzungo kultur etxean izanen dira (17:30ean). Azken saioa Lakuntzako liburutegian izanen da, 19:15ean, eta Ekain Alegre eta Saats Karasatorre izanen dira gidariak.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Askatasun haizea garelako



Izarren hautsak bilakatu ziren
moduan
Sinisten dut
Bagerela bizigai.
Gure ametsak arrazoi garbiz
egiztatuko ditugula noizbait.
Betiko argi bizi bat
piztu baitzen
Inoiz itzali
ezin izan
ezin
ezingo
dutena.
Ez dugu atsedenik ezagutuko
Lotuak garelako
Bihar ere
lurperatu ezingo dutelako.
Askatasun haizea garelako.



Txen 2024ko Altsasuko festetako tekno jaialdian. @TXEN_OFICIAL

Altsasuko musika elektronikoa kalera

Irailaren 27an, larunbata, LH institutuaren ondoko aparkalekuan, 'Altsasu Tech Musika Techno Jaialdia' antolatu du Altsasuko Udalak; DZergy, Anabea, Deathbass, 215 DJ, Aitor Lizarraga, ElSammy, Korena eta Txen herriko disko jartzaileekin

E. R. B. ALTSASU

"Udalean bagenekien Altsasun techno musika egiten duten pertsona ugari daudela; gazteak eta ez hain gazteak". Javier Ollo Altsasuko alkateak urtarrean sare sozialen bidez jakinarazi zuen "herriko pertsona hauekin" jaialdi motako zerbait egitearen ideia zuela udalak: "Interesa zuen orok honen inguruan hitz egiteko nirekin kontaktuan jartzea eskatu nuen". Altsasuar "dezen-te" harremanetan jarri zirela esan du Ollok, eta guztiekin bilera bat antolatu zuten. Topaketa horren emaitza bihar, irailak 27, larunbata, 18:00etatik igandeko 04:00etara, ospatuko den Altsasu Tech musika teknoko

jaialdia izanen da; "bilera horretan lehendabiziko gauza bezala eguna zehaztu genuen, baita tokia ere". DZergy, Anabea, Deathbass, 215 DJ, Aitor Lizarraga, ElSammy, Korena eta Txen DJek parte hartuko dute jaialdian.

Jaialdia

Eta zergatik irailaren 27an? "Altsasuko festen aurretik egitea ez genuen posible ikusten, asteburu ia guztietan ondoko herritako festak ospatzen direlako". Bestetik, gaineratu du alkateak, Altsasuko festen ondoren asko itxoitzen bazuten, eguraldia "arazoa" izan daiteke. "Horregatik, guztion artean, irailaren 27a data proposa dela ondorioztatu genuen".

Kokapenari dagokionez kontuan hartu dute "musika mota hau" ezin zutela herriko erdiguneko espazioetan egin, Foru plaza edo Iortia kultur gunearen zabalgunean kasu, "batez ere bizilagunei eragingo lietzaiokeen arazoengatik". Horregatik, erdigunetik kanpo baino "ez oso urrun" kokatzea erabaki zuten: "Toki aproposena Sakana Lanbide Heziketako institutuaren ondoko aparkalekua da".

Altsasu Tech jaialdian Altsasuko tabernek ere parte hartuko dutela jakinarazi du alkateak: "Haiekin harremanetan jarri ginen barrak jartzeko proposamena luzatuz; lau tabernek parte hartuko dute, eta bi barra jarriko dituzte".

Gartxot eta Olaia Inziarte Etxarri Aranatzek izanen dira

Gaur, irailak 26, Etxarri Aranazko Udalak Hariztiyen kontzertuak antolatu ditu, Andra Mari ermitako zelaian

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udalaren kultur programazioaren barruan Hariztiyen kontzertuak egitasmoa dago, Andra Mari ermitaren zelaian egiten dituzten emanaldiak, eta gaur, irailak 26, ostirala,

20:30ean, denboraldiko lehenengo kontzertua izanen da: Gartxot eta Olaia Inziarte abeslariak izanen dira. Udalak jakinarazi duenez taloak eta edaria egonen dira, eta lurrean esertzeko zerbait edo aulkiak eramatea aholkatzen

dute. Eguraldi txarrarekin kontzertua plazan izanen da.

Abeslariak

Gartxot abeslariak betiko euskal kantak jotzen ditu, sentimendu handiarekin. Donostiako Alde Zaharrean emanaldiak ematen ditu.

Olaia Inziarte 2022an hasi zen bakarlari gisa; *Lehenengo lepotikan burua* diskoa kaleratu zuen. 2023an *Denak begira daudelarik* lana kaleratu zuen, eta aurtien *Zerrautsa* lana kaleratu du.



Ines Castiella Nafar Ateneoaren Euskara bokala eta Xabier Artola itzultzailea.

'Heptamerona' irakurtzen

Nafarroako Margaritak XVI. mendean idatzitako liburuaren itzulpena egiten ari dira, eta atal bakoitza irakurraldi publiko batean aurkezten dute: Heptamerona proiektua. Urriaren 4an Altsasun izanen da, eta eta garaia ezagutzeko jarduerak izanen dira ere

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU Margarita Nafarroakoak XVI. mendean idatzitako *L'Heptameron* liburuia euskaratzen ari da Xabier Artola itzultzailea. Liburuia frantsesez idatzita dago, eta zortzi atal ditu, eta atal bakoitza euskaratzen amaitzean Nafar Ateneoarekin *Heptamerona* irakurraldia antolatzen dute. Bosgarrenaren irakurketa urriaren 4an, larunbata, izanen da, Altsasuko Iortia kultur gunean. Ines Castiella Nafar Ateneoaren Euskara bokala da, eta azaldu duenez, "interesgarria iruditzen zaigu joaten garen tokira goazela tokikoak inplikatzeara". Hor-taz, urriko lehenengo asteburu horretan, besteak beste, Sakanako jendea izanen da Heptamerona irakurtzen.

Heptamerona proiektuak bi helburu nagusi ditu: Margarita Nafarroako erreginak idatzitako

obra euskaratzea eta Margarita feminismoaren aitzindari modura ezagutaraztea eta aitortza egitea. Nafarroako Margaritak "asko idatzi" zuela azaldu du Xabier Artolak, "eta bere obrarik garrantzitsuena *Heptamerona* da".

Bost emakume eta bost gizon dira liburuaren pertsonaiak, eta Pirinioetako konbentu batean itxita daude, euriteak zeudelako, eta zeharkatu behar zuten ibai-ko zubia puskatuta dagoelako. Dekameron Bocacciok bi mende lehenago idatzitako liburuarekin "lotuta" dagoela azaldu du Ar-

"NAFARROAKO MARGARITAK ASKO IDATZI ZUEN; GARRANTZITSUENA 'HEPTAMERONA' DA"

tolak: "Italian gertatzen da, eta ideia antzekoa zen. Han izurrittea zegoen, Florentzian, eta horregatik etxalde batean elkartzen dira eta istorioak kontatzen dituzte". Erreginak "antzeko zerbait" egin nahi izan zuen; "jende bat istorioak kontatzen jarri". Desberdintasunak dira Heptameronen bost gizon eta bost emakume direla, eta emakume ikuspegi batetik idatzita dagoela: "Nabarmena da istorioetan; badago beste desberdintasun bat ere, istorio bakoitzaren bukaeran eztabaidan jartzen ditu han dauden guztiak. Hamar pertsona horietako bakoitzak ematen du bere iritzia, eta hor ikusten da oso argi ere ikuspuntu feminista".

Proiektua 2020ko pandemiaren itxialdian sortu zen. "Fito Rodriguezen ideia izan zen. Etxean itxita geundenean deitu zidan,

eta esan zidan: 'Hi, Xabier! Heptameron ez dago euskaraz, nola da posible. Hasieran ezetz esan nion'. Baina Artolak ongi pentsatu zuen, eta ideia gustatu zitzaidan, izan ere, liburuko pertsonaiak ere itxialdi batean daude. Biak itzulpenarekin hasi ziren, eta orain Artolak jarraitu du proiektuarekin.

Margarita

Irakurraldiaren ideia ondoren sortu zen, Nafar Ateneora jo zutenen. "Nafarroako Margarita garaiko emakume ilustre bat izan zela kontuan hartuta, bere pertsonari eta bere obrari argitasuna ematea izan zen ideia nagusia", azaldu du Ines Castiellak. Horretarako irakurraldia antolatzea erabaki zuten. "Liburuia mardula da, bai luzeran bai edukian. Horregatik, urtero atal bat itzuli eta atal horren ahoz gorako irakurketa antolatzen dugu". Zortzi atal ditu, eta aurtentzen bosgarren atala euskaratu dute. "XVI. mendeko frantsesean idatzita dagoela kontuan hartuta, klasikoen euskara erabiltzea egoki ikusi dugu ere", azaldu du Artolak.

Atal bakoitzaren irakurraldia urtero toki batean egiten dute, "joaten garen tokira goazela tokikoak inplikatzeara" interesgarria iruditzen zitzaien. Dagoeneko Iruñean, Amaiurren, Orbaizetan eta Zangozan egin dituzte irakurraldiak, eta haiekin batera egun osoko jardurak antolatzen dituzte, "proiektuaren helburuak lortze aldera".

Urriaren 4an *Heptamerona* proiektuaren irakurraldia Altsasura helduko da. "Interesgarria iruditzen zitzaien Nafarroatik ateratzea, eta pentsatu genuen Altsasu toki guztietatik gertuen egon zitekeen toki bat dela. Sakanak ere badauka bere historia". Margarita Nafarroakoa Enrike IIren emaztea zen, eta irakurraldiarekin batera antolatzen dituzte jardueretan testuinguru historiko hori lantzen dute, "Nafarroaren Erreinuaren azken urteetako bilakaera". Sakanan sorgin ehiza lantzea erabaki zuten, eta Nabarralderekin ba-

"HELBURUA DA FEMINISMOAREN AITZINDARI MODURA EZAGUTARAZTEA ETA AITORTZEA"

tera gaur, irailak 26, hasi eta urriaren 4ra arte (irakurraldiaren eguna) erakusketa izanen da, Iortia kultur guneko erakusketa aretoan. "1525eko Sorginen ehizaren mendeurrena da, eta gertaera hori Nafarroako konkistarekin lotuta dago".

Irakurraldia

Irakurketa publikora jende askok izena eman duela esan du Castiellak. "Oso arrakastatsua izan da. Dagoeneko ezetz ere esaten ari gara". Aurtengo atala ez dela oso luzea izango gaineratu du Artolak. Besteak beste, Javier Ollo Altsasuko alkateak parte hartuko du irakurraldian, baita Jabi Arakama Euskarabidearen zuzendariak ere. Sakanako eragileen ordezkariak izanen dira ere egitasmoan.

Irakurraldia antolatzeko Artolak testua prest duenean Castiellari bidaltzen dio, eta irakurleen zerrenda prest dagoenean, pertsona bakoitzari testuaren zati bat egokitzen zaio, eta aurretik bidaltzen zaio "aurretik pixka bat prestatzeko". Ez da irakurraldian parte hartzeko aukera bakarra, izan ere, entzule bezala parte har daiteke ere. Sarrera libreia izanen da.

Javier Ollok eta Jabi Arakamak, Altsasuko alkateak eta Euskarabidearen zuzendariak, hurrenez hurren, zabalduko dute *Heptamerona*: Borzgarren Egurenaren irakurraldia, 10:00etan. 10:15etik 11:30era irakurraldia izanen da, kafe tartetxoaren ondoren, eguerdian irakurraldiarekin jarraituko dute, eta Altsasu ezagutzeko tartea ere izanen dute parte hartzaileek. Ondoren, arratsaldean, Iñaki Lopez de Luzuriagaren Sorgin ehiza eta Nafarroako Erresumaren konkista hitzaldia izanen da, eta 16:30ean irakurraldiaren hirugarren tartea izanen da. 18:00etan Ixabel Etxeberria historialariaren eta Amaia Alvarez Uria idazle feministaren arteko elkarrizketa izanen da: Sorgin ehiaren eta inkisizioaren irudikapena Nafarroako Margaritaren obran. Behin hitzaldia amaituta Heptameron abesbatzaren kantaldia izanen da, eta kafe tartean Iñigo Larramendi Nabarraldeko kideak bisita gidatua egingen du Sorgin ehizari buruzko erakusketan.

Irakurraldian parte hartzen dutenendako atalaren argitalpena kaleratzen dute.



Idoia Urbizu Azazeta botikaria Bakaikuko botikinean.

"Bezeroak baino gehiago ere badira, herria da"

Idoia Urbizu Azazeta duela 20 urte inguru iritsi zen Bakaikura herriko farmazialaria izateko. Aurretik, 2000. urtean, Susana Moina bizkaitarrak jarritako botikaren lekukoa hartu zuen. Orain, Urbizuk kudeatutako botikina da

Erkuden Ruiz Barroso BAKAIKU

1 Bakaikuko botikak 25 urte bete ditu.

Berez, nik ez nuen Bakaikuko botika jarri. Susanak jarri zuen, eta bost urte egon zen. Botika jarri zen Nafarroako Botika Legea aldatu zenean; biztanleen ratioa jaitsi zen eta aukera ematen zuen herri txikietan irekitzeko. Susana joan zen, eta nik hartu nuen. Gasteiztarra naiz, eta bertako lan baldintzekin ez nengoen oso pozik, eta nire kabuz jartzea erabaki nuen.

2 Eta zergatik Bakaiku?

Farmazien salerosketak egiten dituzten inbiliaria dauka, eta iragarki bat ikusi nuen. Iruditu zitzaidan ez zegoela Gasteiztik hain urruti, hasteko herri txiki bat aukera bat zela ikusi nuen, eta etorri nintzen.

3 Aurretik ezagutzen zenuen?

Ez. Gurasoekin herria ikusteri etorri nintzen. Farmazia

bat hartzean badira kontuan hartu beharreko gauza asko, ordutegia, baldintzak... Eta kriterio ekonomikoa beste bat da.

4 Nolako izan zen harrera?

Oso ona. Bezeroak baino gehiago ere badira; herria da. Emozionatzen naiz. Asko etorri gara; lehenengo urtetan guardia asko nituen, astebete egon behar gara guardian, eta hemengelditzen nintzen. Jendeak oso harrera ona egin zidan. Modu pertsonalean inplikatu dira. Oso polita da.

5 Espero zenuen horrela izatea?

Ez nekien zer espero nezakeen, baina ez ninduen harritu. Jendea hemen askoz beroagoa da. Kezkatu dira, modu sano batean, nire bizitzaz. Lan honetan konfiantza izan behar dute. Tra-tua oso ona izan da.

6 Eta gero Altsasura joan zinen.

Legea jarri zutenean 2000 urteko prezioak zeuden. Medikamenduen prezioen margena-

rekin goaz. Garaiko prezioekin lan egin zitekeen eta gutxi gora behera bizi. 2020. urtean prezioekin ez. Prezioak jaitsi eta jaitsi ari dira, eta zaila da 370 biztanleekin bizi izatea. Bakaikun eta Ziurdian gertatu da. Agentziaren bidez Altsasun aukera bat ikusi nuen, baina zer gertatuko zen Bakaikurekin? Ikuskaritzan galdetu nuen ea posiblea zen botikin bihurtzea eta zerbitzuarekin jarraitzea, eta problemarik ez zegoela esan zidaten.

7 Zer desberdintasun daude?

Botikin bat da nire ardura-pean dagoen botika txikiagoa. Ez da beste enpresa bat, eta ordutegi txikiagoa du. Beste guztia, berdina izaten da. Farmazialari bat egon behar da; Erkudene-kin, lankidearekin (ez zait nire lan-gilea deitzea gustatzen) hitz egin nuen, eta bera egoten da.

8 Altsasun zer moduz?

Hara beldurrarekin joan nintzen. Herri handiagoa zenez

Bakaiku bezain beroa izango ote zen pentsatu nuen. Oso pozik nago auzoan; oso gustura.

9 25 urte hauetan nola aldatu da farmaziaren mundua?

Oso antzekoa dago. Botikak per-sonalki eman behar dira, erre-zetarekin, eta ezin da online saldu. Parafarmazian bai kon-petentzia handia dago; abantaila da farmazian pertsona bat dagoela aholkatzeko...

10 Nola doaz guardiak?

Saiatzen gara didaktika asko egiten. Nafarroako landa herrie-tan, Sakanan, botikatako guardiak lokalizatuak dira: guardia egitea egokitzen zaidanean telefono ba-tekin nago, eta norbaitek behar badu, urgentzietako errejeta bat

badu, telefono batera deitzen du eta hortik deituko naute. Legea eskuan izanda, errezetak urgen-tziazkoa izan behar du; ez da txartelan hartzeko dagoen zerbait. Horretarako ez dago pentsatuta. Osasun etxera urgentzietara joan eta bertan ematen dizuten erre-zetarekin joan behar da. Deitu eta 20 minutu ditugu farmazian agertzeko, eta 30 minutura igoko dute. Denok gaude behartuta guardiak egitera; batzuetan far-mazia Altsasun egongo da, bes-tetan Olaztin. Osasun zonalde bakoitzean bat egon behar du.

11 Beste 25 urtetarako?

Espero dut ezetz, ia 50 urte ditudalako. Sakanan jubilatze-ko asmoa, nik uste baietz. Aldaketa behar nuena izan da.

BAZKIDETU
Izan giltzarri!

Hilabetean euro baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena _____

Abizenak _____

NA/IFZ _____

Helbidea _____

Herria _____

Telefono zenbakia _____

Emaila _____

Bankuko kontu korrante zenbakia: _____

ES _____



Foru plaza 23,1 Altsasu 31800 (Nafarroa)
948 564 275 | 618 882 675
admin@guaixe.eus
www.guaixe.eus

